1919tik | 2.568 zenbakia | 2017/10/01 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

GABRIEL RUFIÁN (ERC)

“UNE EGOKIAN MOSSOEK EZ DUTE HERRIAREN KONTRA EGINGO”

» EUSKARAZ 365 EGUN EKIMENAZ ESTIBALITZ ALKORTAREKIN

» MURSEGO: “URTEAK DARAMATZAGU LABOATIK ETA LETETIK BIZITZEN, PUSKATU BEHARRA DAGO HORREKIN”

» GELDITU DAITEKE HOTEL BAT OKUPAZIOAREN BIDEZ?

02568
9 771578402 139093

Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO **AGENDA**



Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen egutegia, **sasoi** bakoitzari, **hilabete** bakoitzari eta **ilargialdi**ari lotuta: baratzean, fruitu arboletan, lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin ditugun jasotzeko aukera ematen du agenda honek.

LIBURUA ESKURATZEKO*

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda

12€

*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

@bizibaratzea

ARGIA

2.568 zenbakia | 2017/10/01

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Aktualitatea
7 Fauna publikoa
10 Net Hurbil: Amazoniako Ashaninkak oldarturik

IRITZIAK

17 Asier Blas
18 Martin Aranburu
19 Iñaki Odriozola
Leire Narbaiza Arizmendi
20 Kimetz Arana

Etxebizitza bat okupatu eta hotel baten aurkako erresistentzia abiatu dute Donostian, turismo masiboagatik protestan. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

38 BIZI BARATZEA
40 ARGIA KOMUNITATEA
42 DENBORAREN MAKINA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA: GILLES CLEMENT
54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JORDI BORRÀS

SAKONEAN

12 | Joli Pascualena, abeslaria: "Onespena lortzeko urteak behar dira" / Reyes Ilintxeta
22 | Donostiako hotel bat gelditu nahi dute okupazioaren bidez / Lander Arbelaitz Mitxelena
26 | Gabriel Rufián: "Gauzak aldatzeko aukera bat baino ez da independentzia" / Axier Lopez
30 | OroiTour: Bertsio ofiziala kalean borrokatzen da / Urko Apaolaza Avila
32 | Estibaliz Alkorta: "*Euskarak 365 egun* ekimenak erakunde publiko guztietan izango du isla" / Onintza Irureta Azkune
35 | Eskola kirola: Neska eta mutilek elkarrekin ala bananduri jokatu behar dute? / Jon Torner Zabala
44 | Mursego: "Konfort eremutik ateratzen zaituen artea da benetan eraginkorra" / Kepa Matxain
47 | Arte iruzkina: Izaro Ieregi / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:
Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

PANORAMA

Rohingya herria, sarraskitik ihesi

Rohingya herriko ia milioi erdi lagunek ihes egin dute Myanmarretik (lehengo Birmania) Bangladeshera. Myanmarreko Gobernuko iturriek berriki aitortu dute rohingyen herrien %40 hustu direla armadaren bortizkeriatik ihesi. *NBE*ko Giza Eskubideen goi komisario Zeid Ra'ad Al Husseinek adierazi du "ageriko garbiketa etnikoa dela". Myanmarreko estatu kontseilari eta Bakearen Nobel saridun Aung San Suu Kyik larritasuna kendu dio gertatutakoari, hanka egin ez duten rohingyen beste milioi erdia gizartean integratuta dagoela esanez. 1982an Birmaniako diktadurak herritartasuna ukatu zien eta, 30 urteren ostean, beren kultura eta sinesmenen –musulmanak dira budisten estatu batean– araberako bazterketak okerrera baino ez du egin. Irudian: Myanmarretik txalupaz ihes egin ostean, hainbat errefuxiatu rohingya Bangladesh hegoaldeko kostaldera heldu diren unea.

Argazkia: Olmo Calvo · Testua: Axier Lopez

Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko CETA akordioa indarrean sartu da irailaren 21ean.

“Europar Batasunean debekatuta dauden 82 gai kimiko legal izango dira orain CETArekin. Europan sartuko dira, bai ala bai”

@IUnidaSalamanca

“CETA indarrean sartuko da, nahiz eta ez duen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, akordioaren legezkotasunari buruz”

@NoemiPAH

“CETAk ez du lan eskubideen babesa bermatzen eta enpresek lanpostuak deslokalizatzea ahalbidetzen du”

@ArceredilloB

“CETA, hori bai dela herri baten subiranotasuna galtzea eta estatu-kolpea egitea”

@carlosmavel

Mobilizazioak Frantziako Gobernuaren Lan Kodearen aurka

Mikel Asurmendi
@masurmendi

Irailaren 12an egin zituzten lehenengo mobilizazioak eta irailaren 21ekoa izan da bigarren deialdi handia: Frantziako Estatuko Lege Kodearen aurka mobilizatu dira herritarrak Estatuan eta Ipar Euskal Herrian. Erreformari aurka egiteko Iparraldean jaio den Jusqu’au retrait kolektiboaren hitzetan, legeak “finantza logika ultraliberala inposatzen du, langileen kaltetan”.

Biriatuko autobideko ordainlekuan egindako protestekin abiatu ziren ekimenak 21ean. Mobilizazio bateratua hasi aitzin, sindikatu batzuetako kideek ordainlekua blokeatu zuten eskubide sozialak aldarrikatuz. “Euskal Herria, Macron legerik gabeko lurraldea” eta “Gure askatasun eta eskubide sozialen alde!” izan ziren tokiko indar sindikalen leloak. Fronte soziala osatzen duten hainbat taldek –NPA, Aitzina, EH Bai, EELV, PCF, France Insoumise, LAB, CGT, Solidaires eta Indar Beltza– hartu zuten aitzina. Indar abertzaleek mugarik gabeko ekimen gisa irudikatu nahi izan zuten mobilizazioa.

Emmanuel Macronen politika liberal kapitalistaren aurkakoen eta sistema beraren hariak mugitzen dituztenen arteko borrokak luzarorako dirudi. Lan-urtealdia kolokan dago eta ikasturtea hasi baino ez da egin. Badago zer ikasia, zer lortzea. Lehenik eta behin, Gobernuaren Lan kodearen aurka dauden indar guztien batasuna erdiestea. Horixe izanen da gakoa, erreforma kaltetuenen alde paratu ahal izateko.

“Oraingo trenbidea hobetzeko aukera ez dute batere aztertu”

MARTIN ZELAIA, NAFARROAKO SUSTRAI ERAKUNTZAKO KIDEA

“Antzezlan handia dago Espainiako Gobernuaren baitan Abiadura Handiko Trenarekin. Itsututa ari dira AHT defendatzen eta ez dute beste aukerarik aztertu. Ekonomikoki AHTak suposatuko lukeenaren erdia inbertitu beharko litzateke Nafarroan dagoen trenbidea hobetzeko eta ez litzateke horren txikitzailea izanen ingurumenean”. Txinaren ondoren Espainiak du AHTrako metro koadro gehien. “Ez du deustarako balio”. Gainera, “tren hauek ez dute errentagarritasunik”, nabarmendu du. **EUSKALERRIA IRRATIA (2017-09-19)**

FAUNA PUBLIKOA

"Kezkatzen nau momentu erabakigarrian, aukeratu behar denean, beti aukeratzen duzuela amorerik ematen ez dutenen alde egitea"

Alfonso Alonsok EAJri, EAEko Legebiltzarrean (ElDiario.es)

Inkontziente kolpista

Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Zalantza daukat: PPko Alfonso Alonsok lapsus bat izan zuen joan den ostegunean EAEko Legebiltzarreko mikrofono, argi eta kameren aurrean EAJri abisu hau bidali zionean? Ala, jaka diskretuki alderatuz pistola erakusten dizun sekretaren paperean sartu zen, larderiaz beteriko *"tranquilito"* bat esateko aspirazio katalanak dituzten jeltzaleei? Zeren, zalantzarik ez daukat: alderdiaren historia errepasatuta, Sabin Etxekoei behin gogoratzen zaie "okerreko" zenbakiaren alde dena jokatu izana: 1936an, faxismoaren aurrean zilegitasun demokratikoaren alde egin zutenean. Ongi egina. Garesti pagatua. Geroztik beti neurtu dute zertan sartu eta zertan ez, hasi Xibertatik eta pasa 40 urtean izan diren negoziazio historiko guztietatik. Enric Julianak duela gutxi *La Vanguardia*-n zioen: "EAJren hoztasun operatiboa legendarioa da. Euskal nazionalismoak ez du lagunik, interesak baino ez ditu".

Beraz, Alonso: lapsus bat izan bada, seinale ministro ohi *peperoak* zitaren bat huts egin duela kaskologoan, burmuinaren puska sakonenean bizi zaion alkandora urdin, uztarri eta gezidun muskerra hizketan hasi baita behar ez duen leku eta orduan. Gerrikoan daraman burdina erakusten ari bada, aldiz, adierazten ari da berdin duela botoen %10 eskasa edukitzea probintzia hauetan, kuartelekin eta epaileekin eskura daukala noiznahi boto-kutxek sekula emango ez diotena.

Oso probablea da bi gauzak batera gertatu izana: fatxa mozorrorik gabe eszenan agertzen denean, afizioa du mehatxuka hasteko. Baina orduan galdetu beharko zaio parlamentuan halako mezuak jasotzen dituenari, *txuleria* hori agoantatzeak ze prezio daukan. Eta ez ote den dagoeneko faktura garestiegia bihurtu. ■

ANALISIA

Kataluniako ispiluan… gure eskasiak

Xabier Letona
@xletona
ARGAZKIA: EUSKO LEGEBILTZARRA

Bere hauteskunde programari atxikiz gero, EAJk estatutu berria proposatu beharko luke legealdi amaierarako, 2020rako. Berez, berritu behar zuen 2016rako, hori agindu zuen gobernu programan, kontsulta eta guzti gainera. Heldu zen 2016a eta ez estatutu berririk, ez kontsultarik. Ez ei zegoen akordio nahikorik. 75etik 48 parlamentario zituzten indar abertzaleek, EAJk eta EH Bilduk. Jeltzaleek nahiago izan zuten hurrengo legealdira arte itxaron eta gobernu gehiengoa finkatu 46 eserlekuren gainean: PSErekin koalizio gobernua, aurrekontuetarako PPren sostenguarekin.

Bazegoen gehiengo sendoago bat erabaki eskubidearen alde: EAJ, EH Bildu eta Ahal dugu, 57 bozka, ganberaren %76. Baina EAJk Rajoy sostengatu eta Jaurlaritza eta diputazioak PSErekin lotu zituen.

Gobernatze goxo hori egikaritzen zen bitartean, Katalunian bestelako gehiengoa josi da Madrilek jarritako harresiak elikaturik. Hemen, Espainiako aurrekontuen onarpena eta Kataluniako erreboltaren artean iritsi da Eusko Legebiltzarrera jeltzaleen estatu konfederalaren proposamena.

Ibarretxe lehendakariaren urakan txiki hartatik graduz jaisten joan da jeltzaleen autogobernu eskaera. Harrez gero, Josu Jon Imazen "ez inposatu, ez eragotzi" hark antzeko hainbat jaka jantzi ditu, orain aldebikotasuna, hurrengoan kontzertu politikoa. Beti ere gauza bat argi utziz: ETAren ondorengo abertzaleen balizko jarduera bateratua haizeak ezin samurrago eraman duela; batasunaren mitoaren indarra hutsala zela; biolentzia bazela oztopo, baina ez handiena.

Nafarroan UPNren eta PSNren autoritarismoak batu zituen jeltzale, ezker abertzale eta ezker estatalista. Baina gehiengo hori bera oso nagusi den EAEn, jeltzaleak badoaz PPren eta PSEren aldebikotasunaren bila, orain jakin izan dugunez Espainian Estatu Konfederala eraikitzeko.

Katalan subiranotasunak zer lortuko duen batek daki, munduko duintasunik handiena kalera atera eta borrokan ari dira egunotan… Dagoeneko asko lortu dute. Euskal lurretan, ordea, eta joan den ostegunean politika orokorreko Gasteizko plenoa oinarri hartuta, panorama gordina da: euskal subiranotasuna gaur gaurkoz larrialdi egoeran dago, bereziki teorian abertzaletasuna indartsuen den EAEn. Badu lanik Gure Esku dagok. Badute lanik ELAk eta LABek. Badute lanik subiranotasunaren bidetik estatus juridiko-politiko berri bat askatasunean eraiki nahi duten euskal herritar guztiek.

EKONOMIAREN TALAIAN

Zahar etxeetako asistentzia-kalitatea

Juan Mari Arregi

Herritar gehienek ezagutzen dute, zuzenean eta zeharka, jende askoren bizitzaren amaiera tokiak diren zahar etxe publiko eta erdi-publikoetako egoera. Zuzenean ezagutzen dituztenek, salbuespen batzuk kenduta, ondo dakite zein muga eta gabezia dituzten eta asistentzia-kalitate eskasaren lekuko dira. Zalantzarik gabe, egoera horren arrazoietako bat da pertsonal falta, baita soldatetan eta politika sozialetan dagoen zekenkeria ere.

Bizkaiko zahar etxeetako emakume langileen 300 egunetik gorako greba luzeak eta etenik gabeko mobilizazioek –aurreko astean Eusko Legebiltzar parean ere izan ziren–, denen bistan jarri digute ezkutatu ezin den errealitate hori. Bizkaiko Foru Aldundiak duen erantzukizuna ere azalerazi dute, grebalariekin negoziatzeari uko egin baitio. 5.000 lagun inguruko lantaldea dago Bizkaian 7.500 pertsona zaintzeko; prekarietatea, lanegun nekagarriak, soldata oso baxuak eta langile eskasia salatu dituzte. 1.200 euroko soldata, 35 orduko lan astea eta lantaldea handitzea eskatzen dute. Eta ziurtatu dute greban segitzeko asmotan dabiltzala helburu horiek lortzeko.

Baliteke adinekoen senide batzuk grebarekin gogaituta egotea. Baina orokorrean badirudi gehiengoak greba errespetatu ez ezik babestu ere egiten duela, azken batean aldarrikapen horiekin euren familia-kideen ongizatea ere defendatzen ari baitira, eta etorkizun batean zahar etxean amaituko duen beste jende askoren ongizatea ere bai. Ezeren gainetik, gure zaharrei eskaintzen diegun arreta eta asistentzia-kalitatea dago. Politikariek jakin beharko lukete hori, eta neurriak hartu beharko lituzkete baliabideak jartzeko. Greba luze hau ondo amaitu dadila da neurri horietako bat.

GREENPEACE / PABLO BLAQUEZ

Greenpeacen ekintza Saudi Arabiara armak bidaltzearen aurka

SANTURTZI. Saudi Arabiara joango den *Bahri Tabuk* ontzian armak sartu zituzten joan den ostiralean, eta haren alboan jarri ziren aktibistak pankartak zabaduta. Arma merkataritzaren ezkutukeria salatzeaz gain, ohartarazi dute Espainiako Estatuan ez dela legezkoa herritar zibilen aurka erabil litezkeen armak esportatzea.

Hamaika egunez euskaraz Deustualden

Uriola.eus
@uriolaeus

Hamaika egunez euskaraz ekimena aurkeztu dute Berbaizu euskara elkarteko kideek. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, "Deustualdeko euskaldunak aktibatuz hizkuntza-ohiturak iraultzea" helburu du ekimenak.

Jarduerak
Beste herrietako esperientzien berri izango dute bizilagunek. Zehazki, irailaren 28an Lasarte eta Aguraingo ekimenen ordezkariek emango dute berbaldia. Udazkenean zehar formazio tailerrak eta materiala zabalduko ditu Berbaizuk.

Nola
Lasarte-Oriako eredua erabiliko dute. 'Ahobizi' direnek euskara ulertzen dutenei euskaraz eta ezezagunei lehen berba euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute. 'Belarriprest' direnak "euskara entzuteko prest agertuko dira, erdaraz erantzun arren".

Euskal Herria helburu
Egia, Zuia, Hernani, Astigarraga, Ibarra, Trapagaran... herrien ostean dator Deustu. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte, baina 2018an, Euskal Herri osoan antzeko aktibazio kanpaina antolatuko du Euskaltzaleen Topaguneak.

ERREPRESIOA

33.482

lagun desagertu dira Mexikon hamar urteotan, datu ofizialen arabera. Alegia batez beste egunean 10 pertsona, gehienak gazteak.

43

ikasle desagertu ziren 2014ko irailaren 26an Igualan, poliziak atxilotu ostean. Ayotzinapako eskola normalistako ikasleen kasua ezagunenetakoa da.

ZAHAR ETXEAK GREBAN

Bizkaiko zahar egoitzetako langileen alde kalera atera dira emakumeak Gasteizen. Jada 300 egun baino gehiago egin dituzte greban, lantokiak gainditzen ari den borrokan. Emakumez osatutako mobilizazioa jendetsua egin dute.

TURISMOA ARAUTZEN

Bilboko Udalak etxebizitza turistikoak erregulatuko ditu, ohiko ostatuei lehentasuna emanez. Zazpi Kaleetan eta Bilbo Zaharrean goraka doazen logela turistikoen jarduera finkatu nahi dute eta Turismoaren Euskal Legera egokitu.

HERRI BAZKARIA BURGER KING-EN

Tosu Betirako asanbladak deituta, herri bazkaria egin dute hogei bat gaztek Berangon eraiki berri den Burger King-ean, bertoko produktuak erabiliz eta "lan prekarioan egositako zabor janariaren" aurka.

Amazoniako Ashaninkak kolonoei oldartu zaizkie, 1742ko guduak gogoan

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Irail hasieran *Biodiversidad en América Latina y el Caribe* hedabideak titulatu zuen: "Ashaninka jendeak beren buruzagien kontrako heriotza mehatxuak salatu ditu". Amazoniako indigenek oihanak eraistera doazkien konpainia eta kolonoekin dauzkaten liskarretako beste bat gehiago litzateke… ez balitz XXI. mendean erresistentzian diharduten ashaninkak direla duela 270 urte inbasore espainiarrei aurre egin eta oinak geratu zizkieten haien odolekoak.

Albisteak aipatzen zuen Amazoniako eta oro har oihan tropikaletako herritar gehienek sufritzen dituzten erasoetako bat, legez kontra –inoiz inolako legerik izan baldin bada oihanean– zuhaitzak eraitsi eta eramatera sartutako konpainietako langileak ibili zirela berriz ere beren herrietan beldurra sartzen.

Amazonia sakonean, milaka batzuk Brasilgo alderdian eta gainerakoak Perurenak diren lurretan, Ashaninka herria zenbat pertsonak osatzen duten ere ez dago garbi, 88.000 diote gaztelaniazko Wikipedian, 25.000-45.000 artean ingelesezkoan. Arawak taldekoa da beren hizkuntza eta sarritan *indios campa* deitu dituzte Perun bezala munduan.

Amerikako jatorrizko herri honi espainolek ez diete lekurik egin beren historian, misiolari eta militar erasotzaileen artean zeuden euskaldunen ondorengook ere ez. Baina haien erresistentzia gabe ezin da ulertu ez Amazoniako kolonizazioaren atzerapena, ez beren buruak jende zuriengandik isolatu zituzten indioen jokabidea.

2017ko apirilean Ashaninken Autodefentsa Komiteko boluntarioek Meantari herrixkatik kanporatu zituzten egur konpainiek bertara bidalitako 50 gizon armatu. Ekintzaz dauden argazki bakanetan ageri dira oihaneko herritarrak makila, uztai eta geziz armatuak, nahiz eta banaka batzuek badaramatzaten antigoaleko fusilen batzuk. 2017an *Asociación Señor de Productores Agroforestales y Ganaderos los Reubicados Nuevo Luren- Somaveni* elkarteko egurzaleek lekuon jabe egiteko bigarren saioa zuten, eta bigarrenez egin behar izan zuten atzera 100 lagunez osatutako autodefentsa ashaninkaren aurrean.

CARE Central Ashaninka del Rio Ene elkarteak biltzen ditu ibai horren bazterrean bizi diren 10.000 inguru jendeen informazioak. Zehazki Meantarin 160 lagun bizi dira 21 familiatakoak, tartean Ruth Buendia CAREko lehendakaria, 2014an *Goldman* nazioarteko nobel alternatiboa irabazia: "Kolonoak iritsi zirenean asko beldurtu ginen, gogora ekarri zizkigun Sendero Luminosoko terroristak etortzen zitzaizkiguneko garaiak. Min egin ez ziezaguten ihes egitea baizik ez zitzaigun bururatu".

Patuak edo naturaren oparotasunak nahi izan zuten Sendero Luminoso gerrillak Peruko militarren erasotik ihesi gordelekuetako bat ashaninken basoetan aurkitzea 1980ko hamarkadan. Marxismo maoistaren irakurketa bitxia egiten zuen gerrillaren eta Limako gobernuaren arteko gerrak 60.000 hildako (erdiak gerrillarienak, beste erdiak kontra-intsurgentziak eragindakoak) ekarri bazituen, Amazonasko ashaninka jendeak larrutik pagatu zuen: milaka hil eta desagertu (zenbait iturriren arabera hamar biztanletik bat), familia osoak urte luzez gerrillarien esklabutzan, gazteak bortxaz gudari aritu beharra… Gobernuak gerrilla suntsituta etxera itzulitakoan ashaninka askok kolono berriak aurkitu zituzten beren betiko oihanetan kokaturik: milaka urtez bizileku izandako lur eta zuhaitz haiek berenak zirela nola demostratu?

Egia esan, Sendero Luminosokoek ashanikekin egin zutena edo kolono egurzaleek polizia ustelekin elkar hartuta egin nahi dietena ez dira oso ezberdinak XVIII. mendean espainiarrek jasanarazten zizkietenetatik. Orduan lortu zuten libre atxikitzea bizirauteko adinako lurralde.

Zerura igo zen Juan Santos Atahualpa

Hego Amerikako indigenen antropologian erreferentzia den Stefano Varese perutarrak kontatua du ashaninken XVIII.eko historia *La sal de los cerros* (Mendietako gatza) liburu klasikoan. Vareseri egokitu zitzaion aukera beste antropologo batzuekin batera Juan Velasco Alvarado presidente militarraren gobernu aurrerazaleari laguntzeko Peruko aborigenen eskubideak lege bihurtzeko lehen ahaleginean.

Varesek kontatua du XVIII. mendean Peruko Amazonian Juan Santos Atahualpa izeneko buruzagi inkak indigenekin baina batik bat ashaninka jendearekin kolono espainolen aurrean lortutako erresistentzia arrakastatsua, hein batean iradokitzen diguna bi mende eta erdi beranduago Mexikon *Marcos* komandanteak Chiapaseko maia jendearekin antolatutako gerrilla zapatistaren erresistentzia eredua.

Juan Santos Atahualpa (1710-1756?) zen espainolek menderatutako aristo-

Franklin Briceñok egindako argazkian, ashaninken autodefentsa talde batek 2011n egindako ekintza bat, Ene ibai ertzeko Nuevo Amanecer Hawai herrian burutua: egur konpainiek kontratatutako kolonoak bortxaz sartuak zirenez herrian, ashaninkek bortxaz atera zituzten bertatik zeramatzaten armetako batzuk kenduta. XIX. mendean kautxuaren sukarrak ekarri zituen lekuotara kolonoak, XXI. mendean oihan tropikaleko zura preziatuak.

krazia inka familia bateko semea, gaztetan jesuitek apaizetarako hautatu eta Espainiaraino eramanda, seminarioan ondo hezia. Ameriketara itzulita, bi mende lehenago suntsitutako inken eremu geopolitikoan bizi ziren herriek espainolen kontra zeuzkaten ezinegonak josi zituen. 1742rako kolonoak hasita zeuden lehen erasoak jasaten.

Ashaninka jendearekin berehala lortu zuen konexioa Atahualpak. Etnia hark posizio berezia zeukan Amazonian Cerro de la Sal mendiko –gaur Peruko Oxapampa probintzian– gatzaren komertzioa zela eta. Garaiko *lingua franca* zen kitxua bazekiten askok. Eta, batez ere, bi mendetako esperientziak irakatsia zien atzerritar zuriek ez zekarkietela kalamitatea besterik: Europatik eramandako gaixotasunek suntsitu zituzten hango populazio osoak, misiolariek opari eta hitz gozoz bezala zigor latzez aldarazten zieten munduaren ikuskera eta apaizekin batera etortzen ziren militarrak jendeak hil, herri osoak lekualdatu eta kontzentrazio eremuetan pilatu eta, azkenik, haurrak bezala helduak jabe berrien zerbitzuko esklabo bihurtzera.

Inbaditzaile espainiarren kronikek diote indioen matxinada lehertu zela Domingo Garcia izeneko frantziskotarrak haietako bat –ez zen lehenbizikoa izango– zigorrez egurtu zuenean. Handik laster hasi ziren indigenak ihes egiten fraideek kudeatutako herrietatik, misioei erasotzen, soldaduak bezala apaizak hil edo preso harrapatzen... Santos Atahualpak libre utzitako presoen bidez bidaltzen zizkien mezuak espainiarrei, treguak eskainiz. Inperioak, baina, ez zuen treguarik onartzen *bereak* zituen salbaiekin.

Militar espainiarrek oihan beltz haietan mila soldadutaraino sartu zuten, ashaninkek aurre egingo zietelakoan. Alferrik. Hauek inbasoreei bidea libre uzten zieten gero ezustean atzetik erasotzeko, tropa gutxirekin lagatako misioak kixkaltzeko... Atahualpak bazekien espainolei ezin ziela irabazi, baina kolpe bat hemen eta kolpe bat hor, inbasoreei erakutsi zien ezingo zutela beren presentzia egonkortu bazter haietan.

1752rako ashaninken lurraldean ez zen ez misio eta ez herri espainiarrik geratzen. 120 urtetan ez zen gizon zurirk gehiago arriskatuko paraje haietan. 1756an galtzen da Juan Santos Atahualparen arrastoa. Haren heriotzaren dokumentu zehatzik ez da. Ashaninka zaharrek diote buruzagia ortzian barrena joan zela su batek eramanik. ■

Joli Pascualena, Demode Quartet-eko abeslaria

«Onespena lortzeko urteak behar dira, kontua ez da telebista saio batean agertu eta kito»

Trenari alde egiten ez uzteko esan zioten *Operación Triunfo* abeslari-artistak fabrikatzeko telebista saioan. Tren hura pasatzen utzi zuen ordea, abeslariaren bila baino produktu baten bila zebiltzala konturatu zelako. Joli Pascualenaren ustez arrakasta norberak nahi duena egitea da, eta oraingoz, lortzen ari da.

Reyes Ilintxeta
@Reyesllintxeta
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Oholtzarako bokazioa betidanik izan duzu?

Txikitatik oso musikazalea izan naiz. Uda oro lehengusina guztiak elkartu eta ikuskizun bat prestatzen genuen musika, dantza, antzerkia, iragarkiekin... oso ongi prestatua eta aurkezle eta guzti. Nik gitarra jo eta abesten nuen.

Ordurako jada musika ikasten ari zinen?

12 urterekin gitarra jotzen eta abesten hasi nintzen eta 16 edo 17rekin nire lehen lanak konposatzen. Aita-amek anaia nagusia kontserbatoriora eraman zuten musika ikastera eta utzi egin zuen. Ondoren ahizpak gauza bera egin zuen eta niri txanda iritsi zitzaidanean ez ziren saiatu ere egin. Autodidakta hasi nintzen eta lagunekin talde bat sortu genuen gure gustuko kantak abesteko.

Nola sortu zen Demode Quartet?

Duela hamar bat urte hasi nintzen nire proiektu pertsonalena den honekin, Patxi Barcorekin batera. Jendea bilatzerakoan abeslari apartak eta euskaldunak nahi nituela argi nuen. Mikel Espinal, Mikel de la Fuente eta Iker Huitzirekin abiarazi genuen taldea. Uste genuen urte baten buruan kontzertuak ematen arituko ginela, baina ez zen horrela izan: urte eta erdi pasatu zen ahotsak ongi enpastatu arte eta beste urte bat ikuskizuna prestatzen. 2010ean estreinatu genuen Demode Quartet ikuskizuna eta izen bereko diskoa grabatu genuen. 2013an David Rosco sartu zen Mikel Espinalen partez eta *EPA!* diskoa egin genuen non azaltzen genuen nola, gure ustez, mundu osoko musika estiloek euskal musikan duten jatorria. Orain *Musikal guztiak ia-ia* ikuskizuna dugu. Gaiarre antzokian otsailean estreinatu genuen gaztelaniazko bertsioa eta maiatzean Donostiako Antzoki Zaharrean euskarazkoa. Hemen Iruñean, Baluarten, eginen dugu euskarazko lehena abenduaren 1ean, Euskararen Eguna dela eta, Udalak antolatuta.

Bi bertsio zer dela eta?

Aurreko ikuskizunean abesti guztiak euskaraz ziren eta esketxak hizkuntza batean edo bestean. Orain dena da euskaraz edo gaztelaniaz, baita kantak ere. Munduko musikal famatuenetako hogei kanta baino gehiago aukeratu eta euskaratu ditugu Aiora Zulaika *Pirritx*en laguntzarekin. Saltsa ederrean sartu gara! Erronka da lau pertsonekin musikal handiak egitea. Hori lortzeko proiekzioak erabiltzen ditugu, mozorroak, eta ahal dugun guztia. Izugarri dibertiga-

Joli Pascualena Argüelles

Iruñea, 1976

Abeslari eta aktorea. Ahots hutsez abesten duen Demode Quartet taldearen sortzailea da. Hamar urtean bi ikuskizun eta bi CD kaleratu dituzte. Orain hirugarrena dute esku artean: *Musikal guztiak ia-ia*. Hainbat filmetako eta *Goenkale* eta *Goazen* telebista saioetako aktorea izan da. Datozen hilabeteotan bi CD kaleratzea, Habanako Fábrica de Arte Cubano aretoan emanaldiak eskaintzea eta kantautore lanari berriz lotzea ditu helburu artista iruindarrak.

rria da. *Miserableak*, *Lehoi Erregea*, *Cats*, *Jesus Christ Superstar*, *Ozeko aztia*, *Cabaret*... musikaletako kantak euskaraz lehen aldiz, profesionalki behintzat.

Zer duzue orain esku artean?

Ikuskizun honetako bi diskoak grabatu eta orain editatzen ari gara Durangoko Azokan aurkezteko asmoz. Honetaz gain urrian *EPA!* eta *Musikal guztiak ia-ia* Ezkaroze, Orkoien, Lodosa eta Mutiloan eginen ditugu, besteak beste, eta azaroan Fábrica de Arte Cubanora goaz, Habanara, gure lehen bi ikuskizunekin. Oso aukera polita da. Ez da batere erraza sartzea. Maila handia dago eta lehendik famatua bazen ere, Obamaren emaztea bisitan izan zenetik jende gehiagok ezagutu du mundu mailan. Hiruzpalau eszenatoki dago eta artista latinoamerikar askorentzat erreferente bihurtu da. Oso leku polita da. Orain arte Euskal Herrian, Madrilen, Errioxan... mugitu gara, baina estatutik kanpora joaten garen lehen aldia izanen da.

Eta Joli bezala?

Ikuskizun berria eta diskoak erabat abiatu ondoren nire proiektu pertsonalari heldu nahi diot berriz. Konposizio berriak sortu nahi ditut eta baten bat berreskuratu dut 2018rako bakarkako ikuskizun bat sortzeko asmoz.

Zertaz abesteko gogoa duzu?

Ez dakit zer aterako den. Ni neu aldatzen ari naiz eta konposizio berriak sortu gabe egon naizen hamar urteotan esperientzia ugari bizi izan dut. Seguruenik aldaketez, sentimenduez, emozioez... hitz egingo dut. Eta ziurrenik lan berri horietako batzuek azken urteotan lortu dudan ikuspuntu ironiko eta dibertigarria izango dute.

Zer moduz moldatu zara kameren aurrean?

Zineman bi pelikulatan parte hartu dut: *Dragoi Ehiztaria* eta *Sabin*. Oso paper txikiak ziren. Telebistan lan batzuk egin ditut, garrantzitsuenak *Goazen* eta *Goenkale* telesailetan, oso gustura aritu nintzen. Telesailekin askoz gehiago gozatu dut, paperak luzeagoak izan baitira.

***Operación Triunfo* telebista saiora ere aurkeztu zinen.**

Bai, bigarren ediziora. Lehenengo edizioa ikusi nuen eta inbidia ematen zidaten kantu eskolek. Nik halako akademia batean egon nahi nuen interpretazioa, dantza eta ahotsa ikasteko irakasle onenekin. Kantaria nintzela ere frogatu nahi nuen. Azken faseraino iritsi nintzen. Oso gogorra iruditu zitzaidan nola telebistarako produktu gisa tratatzen gintuzten eta utzi egin nuen. Trena behin bakarrik pasatzen dela bizitzan esan zidan saioko arduradun batek, baina nik argi ikusi nuen. Baliteke tren hori behin pasatzea, baina badira tren gehiago leku berberera ailegatzeko, arrakasta izateko. Agian bidea luzeagoa eta gogorragoa izango da, baina zuk kontrolatuko duzu eta ez besteek. Gainera, arrakasta zer da? Niretzako gustatzen zaizuna egiten bizi ahal izatea da arrakasta. Baina orain ematen du, programa horiei esker, telebistan agertzea dela arrakasta izatea. Ez dut esan nahi telebistak ezaguna izaten eta ateak irekitzen laguntzen ez duenik, baina produktu bihurtzeko arriskua dago, ez baitute artista behar. Askotan galdetzen didate ea damutu naizen hartu nuen erabakiaz, eta ezetz esaten diet, batez ere momentu hartan abeslari bezala zer egin nahi nuen oso garbi ez nuelako, eta oso erraza izango zen produktu bihurtzea. *O.T.* kide asko dira programa horren ondoren oso gaizki pasatu zutenak. Jendearen onespena lortzeko urteak behar dira, kontua ez da telebista saio batean agertu eta kito. Ez da horren kontu azalekoa eta erraza.

Artisten irudi faltsua zabaltzen al dute?

Telebista beti produktu baten bila doa eta askotan askoz inportanteagoa da bizitza pertsonala, ibilbidea edo prestakuntza profesionala baino. Ez dute artista behar, ezta nortasuna duen norbait, bere bertsio edo konposizioak egingo dituena, arima jarriko duena. Kristoren ahotsa izatea eskatzen diete, estilo ezberdinetan abestu ahal izatea, dantzatu ahal izatea... nahiz eta ez izan bere es-

Ezkerretik eskuinera Demode Quartet-eko lau kideak: Mikel de la Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta David Rosco.

tiloa. Gaur egun, kristoren ahotsak entzuten dira, baina arima izatea, kantuei zerbait ematea, ongi abestea bezain garrantzitsua da. Tamalez, zaila da zerbait originala aurkitzea.

80ko hamarkadakoak pila gustatzen zaizkit, norberak nahi duen bezala kantatzen eta dantzatzen duelako. Gaur egun janzkera, dena... berdintsua da. Eta zer esan haurren telebista saioei buruz. Ez zaizkit batere gustatzen. Helduak imitatzen dituzte, oso modu artifizialean. 5 urteko haurrak dio: "Nire bizitza osoko ametsa da hemen egotea...". Nola betiko ametsa, 5 urte besterik ez duzu eta! Oso artifiziala bihurtzen ari da artisten mundua. Egia da halako saioetatik ateratako batzuek jarraitzen dutela. Benetan balio dutenak izaten dira, eta gogor egiten dute lan.

Ekonomikoki zaila da abeslari profesionala izatea?

Guk oso urte gogorrak pasatu ditugu krisia dela eta, baina ezin gara kexatu gauzak nola dauden ikusita. Konpainia eta talde askok bizi ahal izateko beste ogibideren bat hartu behar izan dute eta guk, momentuz, honetan jarraitzen dugu. Krisiak eta BEZak min handia egin dute. BEZa jaitsi da, baina soilik sarrerak erosterakoan, guretzat berdin jarraitzen du kobratzen dugun katxetak BEZ berberarekin segitzen duelako. Oso argi izan behar duzu hori dela nahi duzuna eta hala ere askotan pentsatzen duzu hobe duzula oposizioak prestatzea eta dena pikutara bidaltzea. Bestalde, poz handia ematen dizu, eszenatokian bizitzen duzuna ez dizu beste ezerk ematen.

Euskal Herrian zergatik dago hainbeste kantari on?

Abesteko ohitura handia egon delako betidanik. Iparraldean gehiago, gaur egun bederen. Oso finak dira kantatzen, gainera. Harmonia oso bereziak eta oso doinu eztiak dituzte.

» "Ni euskalduna naiz, euskaldun berri-berria eta argi nuen taldekide euskaldunak behar nituela, euskara eta euskal kultura ezagutzen dutenak"

» Haur kantarientzako telebista saioez: "5 urteko haurrak dio: 'Nire bizitza osoko ametsa da hemen egotea...'. Nola betiko ametsa, 5 urte besterik ez duzu eta! Oso artifiziala bihurtzen ari da artisten mundua"

» "Gaur egun, kristoren ahotsak entzuten dira, baina arima izatea, kantuei zerbait ematea, ongi abestea bezain garrantzitsua da. Tamalez, zaila da zerbait originala aurkitzea"

Poza eta boza lotuta daude?

Triste gaudenean ere izugarri abesti ederrak sortzen dira, baina egia da pozik gaudenean gure gorputza irekiago dagoela eta ahotsa libre ateratzen dela. Ahotsa zuzenean konektatua dago emozioekin eta gorputz osoarekin. Horregatik jarrerak oso garrantzitsuak dira. Gorputza irmo baino, erlaxatua eta malgu izan behar duzu abesterakoan. Gure kasuan batez ere gorputza zaintzea oso garrantzitsua da, ordu eta erdiko emanaldi bat egiteko eta bizirik irteteko. Emanaldi osoa *a capella* abesten dugu, dantza egiten eta esketxak interpretatzen segundo bakar bat ere gelditu barik.

Nola zaintzen duzue ahotsa?

Abestu baino lehen ongi berotu behar da eta tarte zailenak ongi prestatu. Fisikoki ariketa egin behar da eta elikadura ere zaindu behar da. Kantatu aurretik gutxi jatea komeni da, gorputzak indar gehienak digestioan jartzen dituelako. Izotza ezta ikusi ere. Tabakorik ere ez. Emozioek ere izugarri eragiten dute. Gaixorik edo energia gutxirekin zaudenean teknikak hori dena disimulatzen du eta eztarrian min gutxiago hartzen laguntzen dizu.

Euskara eta euskal musikarekin konpromisoa duzu?

Ni euskalduna naiz, euskaldun berri-berria eta argi nuen taldekide euskaldunak behar nituela, euskara eta euskal kultura ezagutzen dutenak. *EPA!*n egin duguna, adibidez, oso dibertigarria izan da. Euskal abesti ezagunetan gure harrikadak sartu ditugu. *Loa-loa* sehaska kanta Bolywood estiloan edo *Behin batean Loiolan* disko-music bihurtu ditugu, adibidez. Euskararen eta kulturaren aldeko ekitaldietan, hala nola gala, aurkezpen edo edozein *sarao*tan parte hartzeko prest gaude beti.

Zuen arrakastaren gakoa zein da?

Dotoreak eta umoretsuak izaten saiatzen gara, eta gure bertsioetan interpretazioaren originaltasuna bilatzen dugu. Lanean oso serioak gara eszenatokian gero dena dibertigarria izan dadin. Guk ongi pasatzen dugu oholtza gainean eta publikoa ere kutsatzen da. Oso garrantzitsua da emanaldira, tokira, egoerara egokitzea. Ez da gauza bera Donostiako Zinemaldiko galan abestea, Ahotsenean edo Nafarroa Oinezen. ■

Erabakitzeko eskubidea jokoan

Asier Blas
EHU-KO IRAKASLEA
@AxiBM

Kataluniako prozesu sezesionistak bi oztopo nagusi izan ditu hasieratik. Lehenengoa da Espainiako Gobernu eskuindarrak erakutsitako demokraziaren aurkako jarrera. Itsu, mutu, gor egon da Kataluniako gehiengoak eskatzen zuen egokitzapen nazionalaren aurrean lehenengo, eta ondoren, autodeterminazio eskubidea egikaritzako aldarrikapenaren aitzinean.

Bigarren oztopoa aldiz, Kataluniako indar politikoen arteko barne korrelazio kontua da. Espainiako Estatuak daukan demokraziaren aurkako jarreraren aurrean sezesionismoak ez du izan gehiengo nahikorik aldebakarreko independentzia prozesu bat martxan jartzeko. Aipatu izan dugun bezala, botoetan legitimatu diren aldebakarreko sezesio prozesu guztiek gutxienez parlamentuan edota erreferendumean bi hereneko babesa izan dute.

Independentistek hasieratik Esloveniako prozesua, Estoniarekin batera, eredu gisa erabili dute Kataluniarako. Esloveniatik gauza asko ikasi daitezke. Halere, egun Eslovenia independentea bada Jugoslavia ohiari esker da, honek askatu zuen Italiarengandik eta Austriarengandik. Esloveniarrak nazio bezala aitortuak ziren Jugoslavia ohian, beraien hizkuntza jaun eta jabe zen beraien errepublika sozialistan, eta hori guztia gutxi balitz, federazioko aginte organoetan parte hartzen zuten sezesioaren kontrako neurriak hartzen zirenean.

Akaso irakurleak ez du jakingo, baina Tito erdi-esloveniarra eta erdi-kroaziarra zen. Jugoslavia ez zen inposaturiko egitura bat Eslovenian, kontrakoa, Jugoslavia esloveniarren askapen nazionalerako tresna izan zen. Sezesioaren aurka egon ziren beti azken minutura arte, baina Jugoslaviara krisi ekonomikoa ailegatu zenean, Milan Kučan-ek, Eslovenia independenteko lehenengo presidenteak esplikatu zuen bezala, irtenbidea Europar Batasunean ikusi zuten. Herrialde txiki balkanikoan prest zeuden Jugoslaviarekin sartzeko Europako Ekonomia Erkidegoan, baina federazioa onartu izan ez balute, bidea bakarrik urratzeko prest zeuden. Bruselak ez zuen Jugoslavia onartu kide bezala eta ondorioz, Eslovenian independentzia zaletasuna bizpahiru urtetan ia ezerezetik masiboa izatera pasatu zen.

> Urriaren 1ean Kataluniak ez du berme demokratikoak betetzen dituen sezesio erreferendum bat izango, egia da Iñigo Urkullu lehendakariak esan duena, erreferendum saiakera horretatik ezin da atera estatu berri baten jaiotza. Baina horren errua ez da Kataluniako Gobernu eta Parlamentuarena, baizik eta Espainiako Gobernu eta Parlamentuarena

Erreferenduma herrialdeko alderdi parlamentario guztiek deitu zuten, partaidetza sekulakoa izan zen, independentziaren alde hauteskunde erroldaren %88,5ak botoa eman zuen, hau da, parte hartu zutenen %94,8ak. Babes ia geraezina; ez da Kataluniako kasua. Horrez gain, Eslovenian gehiengo zabala zegoenez independentziaren alde legeak aginduriko partaidetza minimoak zaindu eta gehiengo zabalagoak lortzeko helburuak zehaztu zituzten, ez da hau Kataluniako kasua.

Baina barne eta kanpo blokeoen aurrean zein da herriaren nahia aurrera eramateko dagoen bidea? Desobedientzia. Ez dago besterik. Urriaren 1ean Kataluniak ez du berme demokratikoak betetzen dituen sezesio erreferendum bat izango, egia da Iñigo Urkullu lehendakariak esan duena, erreferendum saiakera horretatik ezin da estatu berri baten jaiotza espero. Baina horren errua ez da Kataluniako Gobernu eta Parlamentuarena, baizik eta Espainiako Gobernu eta Parlamentuarena. Horregatik, irtenbide bakarra dago egoera desblokeatzeko: desobeditzea, Espainiako Estatuarekin erreferendum adostu bat negoziatzeko.

Espainiak beldurra sentitu behar du, bere adierazpen askatasunaren eta demokraziaren aurkako jarreren aurrean boto uholde bat jaso behar du beldurra senti dezan bere erraietan benetako erreferendum bat negoziatzeko. Katalana bazara, zilegi da independentziaren aurka egotea, baina erabakitze eskubidearen alde bazaude, jakin behar duzu honen alde, hau lortzeko, biderik eraginkorrena independentziaren alde bozkatzea dela. Orduan bakarrik, hautestontziak baietzaren alde beteak daudenean Espainiak negoziatuko du edo derrigortuko dute negoziatzera berme demokratiko guztiak zainduko dituen erreferendum bat. ■

Lortzear zaude, Katalunia

Martin Aranburu
ARTUR MAS PRESIDENT OHIAREN BULEGOKO AHOLKULARIA
@martinaranburu

Urriaren 1ean, Kataluniak autodeterminazio erreferenduma egingo du. Bertan bizi garenok, martxoaren 30eko errolda erabilita, honako galderari erantzungo diogu: "Katalunia errepublika formako Estatua izan dadila nahi duzu?". Ugari izango dira pozak, beldurrak, analisiak eta aurreikuspenak biharamunean. Aldekoek, pozik, prozesu konstituziogilea abiaraziko dute eta hilabete gutxiren buruan hauteskunde konstituziogileak egingo. Kontrakoek, emaitza ezin sinetsita, Madrilera begiratuko dute erantzunen zain, egoera berriak larrituta.

Baina, baiezkoak irabaziko al du? Egunez egun, geroz eta argiago ikusten dut erantzuna. Terrassako argazki bat dakusat hau idazten dudan bitartean. Bertan, Guardia Zibila bertako inprimategi bat miatzen ari da, bozkatzeko erabiliak izango diren paperen bila, bitartean, hainbat pertsonek loreak jartzen dituzte guardia zibilen autoetan. Argazki hori egun hauetako errealitatearen isla da: Estatua, hitzaren espresioa isilarazteko ahaleginean. Ahalegin horrek zalantzakor ziren boto-emaile ugari bozkatzera bultzatuko ditu. Datuak begiratu baino ez dago. JxSi, CUP eta Catalunya Sí que Es Pot-eko boto-emaileek erroldaren %57 egiten dute eta horien artean "bai"-ak garbi irabaziko

> Zenbatetan erabili ditugu historian, indibidualki edo kolektiboki, zapalduei aplikatu zaizkien legediak, eurak gainditzeko?

du. Erreferendumaren ilegaltasunaz asko ari dira Madrildik. Eta egia da, ezin baita defendatu suspenditutako lege batetik ondorioztatzen diren arauak legalak direnik. Baina, zeinek behar du legalitatean debatea zentratu? Zenbatetan erabili ditugu historian, indibidualki edo kolektiboki, zapalduei aplikatu zaizkien legalitateak, eurak gainditzeko? Mila bider. Beraz, legala ez, bai ordea zilegi.

Urriaren 1etik aurrera Parlament eta Generalitateak prozesu konstituziogilea abiaraziko dute batetik, eta bestetik, litekeena da nazioartean Espainiako Gobernuarekiko presioren bat aktibatzea. Parte-hartzea handia izanik eta baietzaren irabazia garbia, ezin da baztertu europar iritzi publikoan erreferendumaren aldeko bozak agertzea, edo behinik behin, Espainiako Gobernuari konponketa negoziatuaren aldeko presioa egitea. Bestalde, negoziaketaren aldeko diskurtsoa Espainiako oposizioan ere zabalduko da, eta horrek Mariano Rajoy bakardade politikoan kokatu dezake. Momentu horretan, batetik, erreforma konstituzionalaren debatea berrasiko da Espainian, eta bestetik, Kataluniako prozesu konstituziogilea motelduko da Kataluniako batasun politikoa hautsiz. Une horretara iritsita, prozesu konstituziogilea martxan egonda, erreforma konstituzionalaren defendatzaileek prozesuari eutsi edo, Madrildik botatako bozei men egingo ote dieten da gakoa.

Ezin ukatu hemengo egoerak sortzen didan inbidia, Katalunia Errepublika independentea izango baita. Ez orain agian. Baina orain arte egindako prozesuak hazi sakonak utzi ditu hemen: atzera-bueltarik ez duen kontzientzia aldaketa kolektiboa eman da jendartean. Zorionak Katalunia. Lortzear zaude. ■

Irabazleen ahuntza

Iñaki Odriozola
IRAKASLEA
@Inaki_Odriozola

Gezurra badirudi ere, Kataluniari buruz ez hitz egitea erabaki dut. Danilo Zolo pentsalariak *Irabazleen justizia* liburuan dioenez, nazioarteko krimenak galdutako gerrak besterik ez dira. Hau gurera ekarriaz, herri txikiak gerra galduetan murgildurik ibiltzen gara, eta, horregatik, beti gaude justiziarik ez dagoen eremuan, kriminalizazio eremuan, ahaztuen, gaiztoen edo terroristen eremuan.

Irabazleek egiten dute Legea, hizki larriz idazten dena, eta bortizkeriaren monopolioaz betearazten digute. Eurak ez daukate lege hori bete beharrik, eta betetzen ez badute ere, askotan gertatzen dena, abokatu eta epaileak jartzen dituzte, lagunak, ia inoiz zigortuak ez izateko.

Irabazleek gerrak irabazten dituzte, eta hildako guztien gainean Bakearen Nobel saria eskaintzen diete. Galdu dutenak, ordea, lurraldea, etxea, eta bihotza triskatuta dakusaten artean, justiziaren atzamarrak euren gain sumatzen dituzte, ezintasunean erabat paralizatuak.

1936an estatu-kolpea eta ondorengo hiru urteko gerra eragin zutenak irabazle atera ziren. Aurkako ideiak zituztenak akabatu zituzten milaka, ez frontean, herrietan baizik, eta oraindik asko bide bazterrean edo mendietan lurperatuta dauzkagu.

Irabazle ziren aldetik, ez ziren inoiz juzgatuak izan; alderantziz, ohorez tratatuak izan ziren. Jendartea eraso zuten, atxilotu, kartzelatu, fusilatu, desagerrarazi. Euren ideiak inposatu zituzten egitura totalitarioa eraikiz, gizarte hertsi, izuti eta indibidualista isila eratuaz, non denak denen beldur ziren, auzokoekiko mesfidantzan biziaz, hormak ere belarriak baitzituzten, eta hitz egitea arriskutsua izan zitekeela pentsatuaz.

Irabazle hauek, estatuaren babesean negozioak egin zituzten, ondasun handien jabe egin ziren, eta besteentzat infernua zena eurentzat paradisu izan zen, gizakien gehiengoaren sufrimenduak areagotuz, gutxi batzuei, zoriona lortzeko balio izan ziena.

Diktadorea hil zenean, dena ondo lotuta utzi zuen, boteredunek kapitala pilatzeko aldaketa politikoak behar zirela adierazi zutenean. Sistema politiko berria, Legea, hizki larriz, berritu zuten, armadaren begiradapean, eta jendartearen gainetik amnesia orokorra dekretatuz.

Estatu berritua egitura zaharraren barnetik jariatu zen, ustez dena aldatuaz ezer aldatu gabe. Irabazleek berriro irabazi zuten, eta irabazle jarraitu dute gaur arte. Galtzaileek berriro galdu zuten, eta euskaldun galtzaile batzuek, temati, apurketa demokratikoa aldarrikatu, eta borrokan jarraitu zuten arren, ez dute lortu, esan dezakegu jada, frankismoaren ondorengoen egitura politiko ustela zulatzea.

Agian, irabazleek, berriz ere, herri txiki bat zapalduko dute, Diagonaletik ahuntza paseatuaz. Halere, galtzaile tankerako abizena duen parlamentariak esan duenari helduko natzaio, etorkizuna ezin baitut asmatu: urriaren 1ean frankismoa hilko da behingoz, Kataluniako hautestontzi batean. Kaka zaharra, ez nuen Kataluniari buruz hitz egin nahi! ■

Andre histerikoak

Leire Narbaiza Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Liliana Felipek "histerikoak tumatxak gara, galduak, vouyeurrak, seduzitzaile konpultsiboak, diva finak Freud eta Lacanen dibanera jaurtiak..." kantatzen du *Las histéricas*-en.

Abesti hori gogoratu nuen twitterren lagun batzuen elkarrizketa irakurrita. Plastiko beltzen atzeko neska gazteez zihardute Hondarribiko alardearen ondoren.

Jaime Altunak zioen neskak plastiko beltzen ostean zeuden bitartean, mutil eta gizonak alarde baztertzailean zebiltzala desfilatzen, lasai eta eroso, inongo kontaktu barik gatazkaren alde bortitzenarekin, txaloak jaso eta parranda egiten. Jaizkibeleko kideekin elkartzen diren tokietan ez dagoelako gatazkarik. Jaizkibel konpainiako ezagunak agurtzen dituzte, elkarrekin hitz egiten dute, "ondo pasa" esaten diete... Mutil eta gizon. Hortxe gakoa.

Begiak zabaldu zizkidan. Neskatilak dira aurpegia ematen dutenak, plastiko beltzean ostenduta. Bitartean, gizonezkoek disfrutatu eta luzitu. Gizonak "normal" eta natural; andrazkoak, ostera, histerikoak. Histerikoek eskopetarekin irten nahi dutelako. Histerikoek, plastiko beltzekin matxismoa defendatzen baitute.

Beti histerismoak jota, jakinekoa baita histeriko berba femeninoan deklinatzen dela. ■

Hats berri bat txosna-gunearentzat

Kimetz Arana
BARATZEZAINA
@7ardi

Hona laburrean, jaietako txosnen historia: "Esparru alternatiboa zena asimilatu eta bertan gatibaturik, kudeatzaile bihurtu gara". Elkarte eta mugimenduei lotuta, esparru alternatiboa izateko sortu ziren bere garaian jaietan txosnak. Taldeen urteko jardunak finantzatzeko, jendea bildu eta festetan ideia desberdinen arnasa-gune izateko. Denboraren ondorioz ordea, ilusio faltagatik edo betikoaren errepikapenean galduta, txosna eredua berritzearen beharra nabarmendu da gure inguruan.

Badira ia hamar urte Euskal Herriko gazte mugimenduaren deialdi bateko karpa handi batean Nafarroa Behereko lagun laborari zenbaitekin multinazionalen edarien salmentaz mintzo ginela. Ezin ulertuz ikusten baitzuten kasik aldarrikapen heineko edari marka zapaltzaileen presentzia normalizatua. "Kausa on batentzat dirua irabazteko denak balio al du?" galdera pausatzen ziguten ohiko arrazoi ekonomiko edo enpresa haien prezioen bonifikazio argudioen aurrean.

Hortik hona, aurtengo gure herriko jaietan urrats eraginkorra eman dute gazteek, ia bere osotasunean multinazionalik gabeko janari-edari eskaintza antolatuz gaztetxeko txosnan. Baratzezainok gauetako ogitartekoak egiteko barazkien horniketan zein auzolanean lagundu dugu bertan.

> "Kausa on batentzat dirua irabazteko denak balio al du?" galdera pausatzen ziguten ohiko arrazoi ekonomiko edo enpresa haien prezioen bonifikazio argudioen aurrean

Jende asko elkartu du txosnak, adin eta mota guztietakoak eta zerbait aldatzen ari ginen ilusioz atxikimendua lortu du. Arratsaldero aritu gara auzolanean, gauetan elikagaiak prestatzen. Jende desberdinak, nagusi zein gazteak, haur eta helduak, gaztetxearen lagunak, nekazarien lagunak, kultur, auzo elkarte edo mendiko auzotarrak. Eskaini dugu zerbait on, osasuntsu eta zaporetsua eta izan du arrakasta.

Bere bizian zer egin ez dakiena bokazio gabeko funtzionario bihurtzen den garaian, oinarrizko ofizioei balore soziala eman die ekimenak, gure auto-estima indartu eta bizitzeko beste bideak proposatu. Posible dela herrian lana sortzea ekoizleak, merkatari txikiak, langile eta mugimendu herritarrak elkartzen bagara. Hats berri bat txosna-gunearentzat praktikatik justizia aldarrikapenei lotua, elkarlanean zabaldu, kontzientziak piztu eta esparru osoa herri alternatiba bihur lezakeena.

Azkenean gure eskualdean, multinazional handien atzaparretatik kanpo etorkizuna izatea, gure herriaren maitasuna haurrei transmititzea, hizkuntza galdu den tokitan berreskuratzea eta guztioi eskaintzea da nahi duguna, gainontzekoa gero iritsiko den ustean.

Distantziatik esango nuke hainbat ilusio piztu duen Kataluniakoaren oinarrian badela halako zerbait. Beraz herria eraiki dezagun txikitik hasita baina ekinez, hitzetatik ekintzetara! ■

ARGIA
943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak
Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia.
Jarri publizitatea hemen

ARGIA
INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA
Egin ARGIAkoa!
Eman eta jaso
nahi duzun neurrian
argia.eus/eginargiakoa

Donostiako hotel bat gelditu nahi dute okupazioaren bidez

Ez dugu berria turismoaren inguruko eztabaida. Bai ordea, Donostiako Alde Zaharrean herritar batzuek hotel baten aurka abiatu duten borroka: eraikineko etxebizitza bat okupatu eta bertan erresistentzia planteatu dute. "Alde Zaharra gune saturatua da, baita Udalaren arabera ere, eta ezkutuan oraindik hotel gehiago egin nahi dituzte?", diote haserre. Prentsaurrean bizilagunei borrokarekin bat egiteko eskatu diete, nabarmenduz lanak ez direla hasi eta Udalak oraindik ez duela azken baimena sinatu.

Lander Arbelaitz Mitxelena
@larbelaitz
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Lau izarreko beste hotel bat egin nahi dute Donostian, Alde Zaharraren bihotzean oraingoan: Santa Maria elizari begira, Abuztuaren 31 eta Kale Nagusiak bat egiten duten erpinean, sei solairuko eraikinean. Bi tabernaren artean geratzen den ate txikitik sartzen da. Ez da zaila imajinatzea behinola, bertako familiak ibiltzen zirela gora eta behera egurrezko eskailera zahar baina dotoreetan. Egun, ez da ia inor bizi, eta lehen solairuetan eraikina kudeatzen duen enpresak dituen beste negozio batzuetako langileak daude maizter. Hotel proiektuaren aurka borrokatzeko bosgarren solairuan okupatu duten etxebizitzan izan da ARGIA, baita bertako kideekin solastu ere, beren anonimotasuna gordetzeko baldintzarekin.

Argi eta Josebak hartu gaituzte –izen faltsuak dira– eta ongi prestatuta dakarte esan nahi dutena. "Gure okupazioarekin eta espero daitekeen erresistentziarekin, azaleratu nahi dugu zer nolako bortxa dagoen askotan turismoaren atzean", diote hasieratik. Etxeko asanbladan onartutako oinarrien gainean, maila pertsonalean aritu direla azaldu dute.

Ekainaren bigarren astean okupatu zuten. Batzuk lehendik okupazioan ibilitakoak dira. 110 metro koadroko etxea oso utzita zegoela oroitu dute, eta leiho onak izan arren, hauts asko zegoela. Hutsik gutxienez hiru urte zeramatzala kalkulatzen dute, baina adierazgarria da gela batean 1998ko egutegia topatu zutela paretan. Lau lagun daude bertan bizitzen, babes sare handiagoarekin. Pareta zuriak apaintzeko, marko beltzetan jarritako argazkiak aurki daitezke etxean barrena, zuri-beltzean. Gehienak manifestazio eta mobilizazioen argazki ikonikoak, baita kartelen bat edo beste ere. Bosgarren pisua izaki, leihoetatik begiratu eta Santa Maria elizaren fatxadan geziek jotako Sebastian hilzoriaren figura ikus daiteke aurrez aurre. "Bazenekiten San Sebastian ikono gaya dela?", diosku irribarrez Josebak.

"Nik uste estigma bat apurtu dugula erdigunean txukun dagoen etxebizitza bat okupatuz, bestela, ematen baitu okupatzekotan kanpoan, urruti eta oso egoera txarrean dagoen zerbait izan behar duela; egonkortasuna eta erosotasuna ez direla guretzat", hasi da Joseba.

Sei solairuko hotela egin asmoz, urteetan pertsona gutxi batzuk bloke osoaren jabe egiten joan direla nabarmendu dute. "Legeak betez edo legez kanpo, familiak bota dituzte pixkana beren etxeetatik, eta beraz, higiezinen *mobbing*-a errealitatea izan da hemen". Azpiko tabernen praktikek ere eragina izan dutela diote, auzo elkarteak berak ere salatu izan duenez. 2013an sute bat ere izan zen azpiko tabernetako batean, eta Udalak aurkitu zuen bi tabernak elkarrekin komunikatuta zeudela baimenik gabe.

"Herri mugimenduetako kideak". Hala definitzen dute beren burua. "Auzo honekin eta Donostiarekin konpromiso bat dugun jendea gara, aurretik ere bagenuen eta orain are eta gehiago. Proiektu hau horixe bera da, auzotik bizilagunak botatzen eta turistei bideratutako hotelak egiten ari direla salatzeko aukera". Lanak ez dira hasi. Udalak ez duela oraindik azken baimena sinatu diote eta hor presio egin nahi dute.

Jabetzak esku gutxitan metatzen

Eraikina egun Blanca Zaragueta zinema zuzendariarena eta Consuelo Zaragueta enpresariarena da, Vicente Zaragueta zenaren alabak biak. Azken hori beste gauza batzuen artean, *El Diario Vasco*ko presidente-orde, Aquariumeko presidentea eta Espainiako errege ohiaren lagun izan zen, Gipuzkoako fortuna handietako bat. Jabeak ez dira bertan bizi.

Jabetzan Zaragueta ahizpena izan arren, Asier Arriola Arriola izeneko enpresari batek kudeatzen du eraikina, Nahikida SL izeneko enpresa baten bidez. Arriolak hainbat negozio ditu Donostian, denak ostalaritza eta turismoaren esparrukoak. "Eraikinaren behealdean bi taberna ditu: Atari eta Sirimiri; Parranda izeneko hirugarren bat, Narrika kalean; Alde Zaharrean bi pentsio kudeatzen ditu, Basque Tours bidai agentzia berea da, Gu diskoteka kudeatzen du, Janondo jatetxea eta Urban Youth Hostel enpresa berea da. Hori, guk dakigula. Aberastasun banaketa murrizten doa, jabeak gutxitzen ari direlako eta geroz eta botere gehiago dutelako", salatzen dute.

"*Turismoarekin denok irabazten dugu* esaten digute, baina denok ez dugu irabazten. Batzuek asko irabazten dute besteok bizirauten dugun bitartean, klase borroka berriz ere. Eta orain hotel berri bat egin nahi du, eta eraikin honetan ezingo da sekula gehiago Alde Zaharreko auzokiderik bizi, eta prezioak igotzen jarrai dezaten bultzako du", dio serio Argik.

Donostiako Parte Zaharra, saturatuta

Donostiaren turistifikazioak eta honen aurkako protestek nazioartean ere arreta deitu badute, garrantzitsua da kokatzea, balizko hotel hau auzorik saturatuenean egin nahi dutela. Irakurlea kokatzeko Parte Zaharrean Bizi elkarteko kide Xabier Arberasek orain bi aste idatzi zuen *Donostiako Parte Zaharraren kasua edo beste aldera begiratzeko antzea* artikuluan, instituzioen jarrera gogor kritikatu ostean, bizi duten egoeraren datu batzuk eman zituen.

"6.000 lagun bizi gara Parte Zaharrean. 700dik gora merkataritza-lokal daude zabalik, eta 210 ostalaritza-establezimendu (29 biztanleko bat); hiriko gainerako auzoen aldean, hiru bider merkataritza gehiago eta sei bider ostalaritza-establezimendu gehiago. Lokal guztien %50 daude turismora zuzenduak. Hamaika kaletan daude bilduak ostalaritza-establezimenduen %65; 17 gastronomia-elkarte, eta 280 apartamentu turistiko dago (horietatik, %84 legez kanpokoak dira); hiru hotel (bat

eraikitzen ari dira) eta 62 pentsio. Eta 1.600dik gora ohe turistentzat".

Gaiak orain gutxi hartu duen arren dimentsio mediatikoa, auzo honetako bizilagunek urteak daramatzate kezka mahai gainean jarriz. Geroz eta turistifikatuagoa den gunean ez daukatela kultur etxerik edo kiroldegirik salatzen dute, Orixe ikastolaren leku falta barne, zerbitzu publiko batzuk aipatzearren. Ez dago etxebizitza publikoko politika aktiborik eta askoren ustez auzoaren identitatearen, historiaren, kulturaren eta, batez ere, euskararen egoera "dramatikoa" da, artikulugileak azaltzen duenez. "Bi urteotan Udalak beste aldera begiratu du, 240 legez kanpoko kasu salatu badira ere. Horietatik, erantzunik gabe jarraitzen du % 90ak baino gehiagok", dio.

Auzokide asko haserre dago gaia mahai gainean jartzean agintari eta

» "Turismoarekin denok irabazten dugula diote, baina ez dugu denok irabazten; batzuek asko irabazten dute"

» Alde Zaharreko auzokide asko haserre dago turismoaren gaia mahai gainean jartzean agintariek eta hauen gertuko hedabideek emandako trataera sinplistarekin

hauen gertuko hedabideek emandako trataerarekin. Arberasek honela amaitu zuen idatzi zorrotza: "Bi urte igaro ta, Parte Zaharrean okerrago bizitzen dela egiazta genezake. Udala espezialista egin da beste aldera begiratzen, eta trebetasun osoa eskuratu du antze, argi dago, guztiz arduragabe horretan".

"Nora garamatzate?"

Argi eta Joseba ere oso kritikoak dira egoerarekin. "Ez dakit kontziente garen herritarrok hiria hartzen ari den norabideaz, azken hamar urteetan jasan duen eta oraindik jasaten ari den eraldaketaz. Dena aldatzen ari da". Udan lehertu den eztabaida "oso mediatizatua eta sakontasun handirik gabekoa" izan dela uste dute hauek ere. Donostiako Udalak proposamen berriak egin dituen arren, bere ereduan sakontzen jarraitu duela ikusten dute. Horri aurre egiten eta tu-

Donostiako lau lagunek hotela egin nahi duten eraikineko etxebizitza hau okupatu zuten ekainean, bosgarren solairuan. Alde Zaharra turismoarekin saturatuta egon arren, Udala hotel berri baten eraikuntza onartzear dela salatu nahi dute. Hotelaren aurkako borroka gai honekin kezkatuta dauden herritarrak mobilizatzeko baliagarri izatea nahi dute.

rismo ereduari buruzko posizioak "biluzten" saiatu nahi dute.

"Periferiako auzo batetik erdiguneko beste batera, lau urteko bizi esperantza aldea dago, eta beste gauza askoren artean, uste dugu turismoak klase gatazka areagotzen duela", dio Josebak.

Turismoa kapitalismoaren "barne esfera" gisa definitzen du Argik, "kokagunea du hiria edo herritarren bizitokia, eta bizitokia aldatuz gero, herritarren bizitza aldatzen da. Eraldaketa hori bizilagunen kalterako izaten ari da nabarmen".

Joseba ildo beretik doa. "Kontsumitzen dira hiriak, bizimoduak eta pertsonak, dena azalekotu egiten da, dena da *typical*, eta dena txikitzen doa: auzoak, hiriak, komunitateak eta planeta".

Alde Zaharrean etxe hutsak badaudela eta auzoko ehun sozialean parte hartzera joateko dei egiten diote jendeari. "Indibidualismoaren aurrean, bultza dezagun bizimodu kolektiboa eta bizitza ingurukoekin konpartitzea", dio Argik zer defendatzen duten ere esateari garrantzia emanez. "Okupatzeak ematen du elkar laguntzea praktikan jartzeko modu potentea, eta gainera, min egiten die", dio irribarrez Josebak elkarrizketa amaitze bidean.

Ez daudela auzoan taberna bat duenaren edo turismo sektorean lan prekarioan ari denaren aurka argi utzi nahi dute. "Gu auzoak txikitzen eta sektorean negozio ugari dituzten enpresarien aurka gaude. Ahaztu gabe turismoak mila aurpegi dituela. Gure ekintzarekin hotela eta enpresari handiak seinalatu nahi ditugu".

Dikotomia argi daukate: "Arriola edo auzokideok. Beraiek hotelak, guk etxebizitza komunitarioak".

Kanpai hotsak entzun dira. ■

Gabriel Rufián

“GAUZAK ALDATZEKO AUKERA BAT BAINO EZ DA INDEPENDENTZIA”

Politikari gutxik jaso ditu horrenbeste txalo eta irain hain denbora laburrean. Bilorik ez diozu ahoan aurkituko, salbuespenezko garaiotan, Espainiako politika astindu duen *outsider* katalan honi. Esquerra Republicana de Catalunyaren Bartzelonako egoitzan hartu gaitu Gabriel Rufiánek. Mediaseteko kamerak zain ditu atean, baita kalez jantzitako hainbat polizia ere. Elkarrizketa egin eta bi egun geroago Guardia Zibilak Generalitateko 12 goi kargu atxilotuko ditu, tartean bere alderdikide batzuk, eta milaka lagunek kaleak okupatuko dituzte Kataluniaren aurkako estatu kolpearen lehen kapitulua salatzeko.

Axier Lopez
@axierL
ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

Guardia Zibilak erreferendumaren webguneari ezarritako zentsura informatikoki gainditzeko irizpideak zabaldu ditu nork eta Generalitateko president-ak. Oso gauza eroak gertatzen ari dira egunotan, ezta?

Bai [barre artean]. Batzuentzat 'shock' hutsa da, baina hemen, salbuespenezko garaietan, salbuespenezko koalizioak egin ziren eta oso bestelako munduetatik zetozen pertsonak, Carles Puigdemont eta Anna Gabriel kasu, egun jardun berean ari dira.

"Zilegitasuna vs agintea" al da bizitzen ari garena?

Nik uste baietz. Estatuak legeak baino ez ditu eskura; gau bakar batean beraiek aldatu zuten konstituzio bat, 40 urtez bortxatu dutena, 47 eta 128 artikuluak kasu. Aldiz, egun, paparra jasota aldarrikatzen dute. Erabateko hipokresia da. Gizartea ez da legeen arabera moldatu behar, gizartea da legeak egokitu behar dituena. Gainera, gauza bat da legalitatea eta beste gauza bat, oso bestelakoa, zilegitasuna. Orain 80 urte, egunean 8 orduz lan egitea, greba egiteko eskubidea edo bozkatze unibertsala legez kanpokoak ziren.

Bidean honakoa zioen kartel batekin egin dut topo kalean: "Desobedientziarik gabe, ez da independentziarik".

Ni oso eroso sentitzen naiz desobedientzia hitzarekin, baina, zinez, uste dut askoz zuzenagoa dela norberaren buruarekiko obedientziaz hitz egitea. Horixe da Kataluniako parlamentuak egin duena: bere buruari obeditu, hitzemandakoa bete eta agindu independentistari hutsik ez egitea. Oposizioa, era ez-zilegi batean, kexu zen hauteskunde-programa betetzen ari ginelako, hain zuzen. Apaltasun osoz diot, horixe da politikagintzaren etorkizuna. Kataluniako parlamentua erakusten ari da ondoren gertatu behar duena, baita Espainiako Kongresuan ere.

CUPeko alkateak agindu judizialak desobeditzeko prest agertu dira. Zenbait girotan azkura eragin du erabaki horrek, Mossoekin gatazka eragingo duelakoan.

Puigdemontek berak, gutako batzuen antipoda ideologikoetan dagoenak, esan du ez diola balizko inhabilitazioari men egingo, President-a jarri edo ken dezakeen bakarra Kataluniako herria delako. Gauza bera adierazi du Oriol Junquerasek. Aurrerapauso handia da, inoiz horrelako urratsik egitea askori pentsaezina egiten zitzaion pertsona batzuen aldetik.

CUP eta ERC-ko alkateek, baita PDeCATekoek, eta, seguruenik, beste alderdiren batekoek ere, egingo dutena ez da desobeditzea izango, beren jendearekiko konpromisoa betetzen saiatzea baizik. Lehen, bozkatzera ez joateko edo ezetza bozkatzeko asmoa zuen pertsona asko, egun, bozka ematera joango da eta batzuk baietzaren aukera aztertzen ari dira, ulertu dutelako ez dela zilegi haien herrian demokratikoki hautatu duten alkatea jazartzea.

Urriaren 1az galdetuta, batzuk estatu kolpeaz mintzo dira, beste batzuek diote, erreferenduma egitekotan, arazo asko izango direla…

Egia esan, erreferendumarekin lotutako pertsona edo bileretan, nik ez dut ezagutu plan alternatiboren bat proposatu duen inor. ERC eta CUPen aldetik guztiz ziur nago horrelakorik ez dagoela, eta PDeCATen aldetik ere, uste dut ezetz. Erabateko gehiengoa daukagu parlamentuan, milaka eta milaka pertsona daude kalean eta president-ak, presidente-ordeak eta gobernuak oso argi daukate erreferenduma egin egingo dutela. Hori nola geldiarazten da? Guardia Zibila jendea atxilotzera bidaliz? Komunikabide eta inprimategien aurrean poliziak jarriz? Erreferendumaren posterrak bahituz? Lapurtu ostean kartel horiek kalean jarrita baino famatuago bilakatzen ari dira eta. Geldiezina da. Joan Tardak ondo dioen gisan, historiak egiaztatu du ez dagoela demokrazia gelditzerik, jendea kalean geldiezina dela. Erreferenduma egin egingo da, beste alternatibarik ez dagoelako. Liskar eta gatazka politikoak hautestontzien aurrean konpontzen dira.

Espainiako Polizia eta Guardia Zibila ez dira erreferendumaren aurka lanean ari diren agente bakarrak. Herri askotan Udaltzaingoa eta Esquadra Mossoak dira jendea jazartu ala zentsura aplikatzen ari direnak.

Guardia Zibila komunikabide baten aurrean jarri denean, guk ez ditugu haiek seinalatu. Areago, gu Espainiako Kongresuan duintzen saiatu gara guardia zibilen lan-baldintzak, kasu askotan oso kaskarrak direlako. Klase politikoarena da erantzukizuna. Gure aldetik arduragabea litzateke polizia hau edo beste seinalatzea. Baina ziur naiz, une egokian, Esquadra Mossoek ez dutela Kataluniako herriaren aurka egingo.

Poliziak bahitu ditu 100.000 kartel kalean inork ikus ez ditzan, baina aldi berean "legez kanpoko" kartel horiek Twitter bidez zabaldu ditu mundu osoak ikus ditzan.

Dramatikoki, Espainiako Barne ministro Zoidok horrelako txioak idazten ditu, horri esker hauteskundeak irabazten dituelako. PP, Ciudadanos, Auzitegi Konstituzionala, Fiskaltza eta Aranzadi brigada mediatikoak horrela jokatzen dute Espainiako Estatuan hauteskundeak irabazten dituztelako era horretan. Hemen, aldiz, bigarren mailako alderdiak dira, PP bereziki.

Anaiatzat ditugun politikari batzuek kontrakoa irudikatu arren, Rajoy ez dago Moncloan efektu meteorologiko baten ondorioz. Berak hauteskundeak irabazten ditu, eta are gehiago irabazi ditu Carme Forcadell epaileen aurrera eramanez. Pankartak egiteko txantiloiei argazkiak eta bideoak eginez, Pablo Escobarren kokaina bailiran, irabazten dituzte hauteskundeak Espainian.

Gero eta errepresio handiagoa, orduan eta elkartasun eta mobilizazio handiagoa. Hori al da ekuazioa?

Ez. Oxala errepresiorik ez balego, baina egon egongo da. Bortizkeria judizialak jarraituko du. Inhabilitazioak. Guda zikina. Guk ondo egiaztatu dugu "Catalunya operazioa" ikertzeko Kongresuan eratu zen komisioan. Guda zikina ez da iragana, gaur egun gertatzen ari da eta gertatuko da aurrerantzean ere. Egia esan, seko aspertuta egongo dira gure atzetik dabiltzanak, oso bizitza aspergarriak ditugu eta.

Prozesuak aurrera egin ahala, Kataluniako gizarteak ezkerrerantz egin duela begi-bistakoa da.

CUPen moduko agerpenak dira horren bermea. Kasu askotan haiek izan dira prozesu honen lema, jende askoren kontzientzian *kilker hiztuna*rena egin dute. ERC alderdia gero eta handiagoa da, askotariko pertsonak biltzen ditu. Horrek indar politiko garaile bihurtzen du. Nire itxaropena da, noizbait, horrelako zerbait gertatzea ezker abertzaleari Euskal Herrian.

Beste ezker batek, Podemosek, dio Rajoyk alde eginez gero, dena aldatuko dela. Hori oso diskurtso tranpatia da, esan nahi duelako PSOE, Ciudadanos, Auzitegi Konstituzionala eta enparauak konbentzitu behar dituzula. Anaitasuna eskatzen digute. Baina gure ustez hori beste gauza bat da, adibidez, irabaz dezakeenari irabazten uztea eta ez esatea zain egon behar dela besteak irabazi arte.

Burgesiari buruzko galdera ondokoa da: zergatik da txarra PDeCATekin autodeterminazio prozesu bat adostea eta, aldiz, ona da PSOErekin adostea Espainiako erreforma? Momentuz, erantzuna isiltasuna izan da.

Beste mota bateko konpromisora salto eginez, lehendakaria ere oso argi mintzo da.

EAJren barruan zati bat dago Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldekoa dena erabat. Zati horri errespetua diot, baina PPk aurrekontuak EAJri esker onartu zituen. Iñigo Urkulluren adierazpenak klabe horren arabera ulertu behar dira. Ulertzen ez dudana da zergatik batzuek uste duten EAJk erreferendumak bermerik ez duela dioelako gure prozesua kaltetu behar duen. EAJ gaur egun alderdi autonomista da ia osotasunez. Espainiako Kongresuan interes propioak dauzka eta lehentasunezko bazkidea da PPrentzat. Hein batean, logikoa da. Batetik, hori egiten duen lehen aldia ez delako, eta, bestetik eta gehien bat, eskuineko alderdi bat besterik ez delako EAJ.

Barcelona en Comú-ko Gerardo Pisarellok dio "mobilizatu eta bozka dezagun autoritarismo zentralistaren aurka oldartzeko" eta Podemoseko Pablo Iglesiasek "PP botatzeko laguntza behar dugu". Alde handi xamarra dago, ezta?

Buruzagitzaren eta bozka-emaile, militante, zale eta haiengan konfiantza jarrita duen jendearen artean bereizketa egiten saiatzen gara. Baina badira hainbat lider Podemos, Catalunya Sí que es Pot, Barcelona en Comú eta Catalunya en Comú-n, motzean, ondoregoa diotenak: "orain ez datorkit ondo".

Oso eskertzekoa da garrantzi handiko hainbat kidek, lehen minututik, erakutsi duten ausardia; Jaume Asens, Albano Dante edo Marta Sibina, adibidez. Zirkulu eta asanbladetan erreferenduma eta 78ko erregimena hausteko duen gaitasuna kosta ala kosta babestu eta defendatu dituen jendea da. Aldiz, beste batzuen planteamendua da, zilegi izanik ere, etorkizunean PSOErekin adostuko duten proiektuan kargudun bilakatzea. Eta orain erreferendumaren alde agertzearekin bateraezina irizten diote. Baina zorionez afiliatuen eta militanteen iritzia gailendu da. Ziur gaude aktiboki parte hartuko dutela

Podemoseko Manolo Monereorekin izandako buruz-burukoan, ondorengoa esan zion CUPeko Pau Llonch-ek: "Espainiako ezkerra autodeterminazio eskubidearen alde dago, baldin eta ez bada inoiz gauzatzen".

Egia borobila da. Paurekin oso harreman ona daukat. Gaur egun ezkerrak duen bururik onenetakoa dela iruditzen zait. Noizbait ikusi nahiko nuke, adibidez, parlamentu batean. Eztabaida interesgarri horrek ondorengoa utzi zuen agerian: oso duina eta ausarta den Espainiako ezker bat dugu aurrean –Monereok ordezkatzen duena–, borroka eta desobedientziatik datorrena, baina ez duena ezertxo ere ulertzen. Kataluniari begira erabateko miopia dutela erakusten ari dira. Katalanak, nolabait, haserre dauden espainiar batzuk garela esatera murrizten da beren mezua. Haiek boterean jarriz gero dena konponduta dago, arazoa Rajoy delako. Baina arazoa askoz harago doa. Guk oso argi dugu hau guztia Espainiarengatik ere egiten dela. Espainiako Estatua demokratizatzeko aukera bakarra Kataluniako autodeterminaziotik pasatzen da.

CUPek amore eman izan balu eta egungo president-a Artur Mas balitz, hau guztia posible litzatekela uste duzu?

Gogoan daukat garai hartan CUPeko zenbait lagunen artean tentsioa eragin zuen zerbait esan nuela: "Masek ordezkatzen duen hori gabe, ez dugu egingo". Horrekin adierazi nahi nuen independentismo mota asko daudela, jendea oso bide ezberdinetatik heldu dela hona: arrazoi ekonomikoak, identitarioak, ideologikoak –hori da nire kasua–, alderdikoiak, eta abar. Eta bada independentismo mota bat presidentzialista dena, 'masismoa'. Estatu bat gure kontra edukita eta hauteskunde

plebiszitarioen ostean gehiengo argia izanik, inor ez dago soberan.

Zientzia fikzio politikoa egitea da, baina egia da aldaketa eragin zuela PDeCATen, eta agian, hori gabe aurpegi eta lider berriak geroago helduko zirela. Halere, ez dezagun ahantzi, Generalitateko president-a izan gabe ere, hor dagoela Artur Mas. Beragatik honetan sartuta dagoen jendea, masismoa, ordezkatzen jarraitzen du.

Santander, BBVA, La Caixa, Sabadell eta Popular bankuek orain bi urte komunikatu bat sinatu zuten esanez alde bakarreko independentzia aldarrikatuz gero Kataluniatik alde egingo dutela.

Lehenik, horrek gezurtatzen du prozesu hau Kataluniako burgesiak gidatutakoa dela dioen mantra hori. Hala balitz, galdera hau ez litzateke planteatuko, eta, gainera, honezkero independenteak ginateke. Bigarrenez, jende horrek ez du ideologiarik. Akaso zerbait badu, baina nagusia dirua da. Erabateko pragmatismoak zuzentzen ditu. Gehiago ala gutxiago gustatuta ere, Katalunia ekonomia indartsua da, Espainiako Estatuko motor ekonomikoa. Beraz, jende horrek nahi duen gauza bakarra da dolar bakar bat ere ez galtzea.

Baietzak irabazten badu, hurrengo egunean Espainiako Estatuak izango du interes handiena Kataluniari gauzak ondo joan dakizkion. Prozesua irekiko dugu den-dena negoziatzeko, baita aktibo eta pasiboak ere. Beraz, ez dut uste problemarik izango denik, ni finantzen munduarekiko sektore kritikoenetakoa izanik ere.

Zer etor daiteke Merkel, Macron eta enparauen Europar Batasunetik?

Europa ez da existitzen, bankuak dira. Doilorra eta zitala da Europar Batasuna, Mediterraneoko eta Mazedonia eta Grezia arteko mugako irudiak ikustea besterik ez dago. Baina horiek ere pragmatiko hutsak dira. EBk Katalunia botatzen duen edo emaitza demokratikoari muzin egiten dion egoera bat irudikatzea oso zaila egiten zait. Hungariari edo Greziari EBtik irteten utzi ez dieten berberak dira.

Jakitun gara Katalunian gertatzen ari denari buruzko interesa gero eta handiagoa dela botere-gune horietan ere.

Zahartutako Mendebaldeko gizarte atzerakoiak, berez, uzkurrak dira edozein aldaketarekiko. Independentzia prozesu orok aztoratzen du herritarren egunerokotasuna, era gogor ala apalago batean. Askotan ez al da minik gabeko prozesu bat saltzen ari?

Arrazoi osoa duzu. Eskozian gazteen %70ak independentziaren alde bozkatu zuen. Adinekoengatik galdu zen erreferenduma, beldurragatik. Beldurraren diskurtsoarekiko sektore ulerberena da, pentsioen gaiagatik-eta. Hemengoa kafkiarra da. Rajoy da pentsioen sistema lurperatu duena eta berak gu ipintzen gaitu pentsioak galtzeko arriskutzat.

Nire esperientziagatik, hemen adineko bozka-emaileak, oro har atzerakoia eta PDeCATen bueltakoa dena, erabat mobilizatuta daude. Jende asko jabetu da arazoa ez dela aldaketa, baizik eta gaur egun bezala jarraitzea. Problema ez direla etorkizuneko pentsioak, gaur egungoak kobratzeari noiz utziko diogun baizik.

Baina oso ados nago zurekin ondorengo zentzuan: independentziaren hurrengo egunean dena zoragarria eta Katalunia aparta izango dela dioen diskurtsotik urrundu behar gara. Ez du zertan hala izan behar, osatuko diren hegemonia eta bozkatuko diren proposamenen arabera izango da. Gauzak aldatzeko aukera bat baino ez da Kataluniako independentzia. Hori besterik.

Orain dela 80 urte lapurtu ziguten herri-eredua berreskuratzeko aukera bat da, denok berdinak izango garen errepublika bat, non ez den izango, abizenari esker, diru publikotik 8 milioi euro kobratzen dituen familiarik. Horregatik bakarrik merezi du. Ni oso bat nator David Fernadezen esaldi honekin: "Gure M15a prozesua da". Jende askok dena galdu zuen, baita beldurra ere. Eta urriaren batean hori erakutsiko dela konfiantza osoa dut. Hautestontziek agintzen dutenean, emaitza ez da inoiz ziurra izaten. Pentsa, nik ez dut ezagutzen PPri botoa ematen dion inor eta hauteskundeak irabazten dituzte. ■

❱ Hamar galdera-erantzun gehiago **www.argia.eus** webgunean

OroiTour

Bertsio ofiziala kalean borrokatzen da

Gasteizko tour politikoak elkarri lotuta dauden garai eta agertokiak ditu ardatz, nola *Lauaxeta*-ren fusilatzea edo 1976ko langile sarraskia. Herri-tresnatzat dute ibilbidea Martxoak 3 elkartekoek, Frankismoaren krimenak desitxuratzeko "estatu estrategiaren" aurrean. Urriaren 7ko ARGIA Egunean ezagutu ahal izango dituzu kaleari konkistaturiko memoriaren espazioak.

Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza
ARGAZKIA: MARTXOAK 3 ELKARTEA

"Bertsio ofiziala etengabe borrokatu behar den munstroa da", dio Lander Garcia gasteiztarrak, Martxoak 3 elkartean egiten ari diren lanaren berri ematen duen bitartean. Eta horretarako tresna guztiak dira beharrezkoak. OroiTourrekin kalea aukeratu dute. Ibilbide honen bidez ezagutarazten dituzte azken mende eta erdian Gasteizen izandako hainbat gertaera, hiriaren izaera definitzeko mugarri izan direnak.

Asmoa duela hamar bat urte sortu zen, Martxoak 3ko hainbat kide Ipar Irlandara lehenengo bidaiak egiten hasi zirenean. Hango hirietan tour politikoak antolatzea ohikoa da –euskaraz ere egin izan dira–, Belfasten eta Derryn adibidez. Berehala antzeman zuten Derryko 1972ko *Bloody Sunday*ko gertaeren eta Gasteizko 1976ko sarraskiaren arteko antzekotasuna: "Gogoratzen dut –dio Garciak– Free Derry museoan izan ginenean hango lagunei hori esan geniela, eta haiek erantzun ziguten ez ginela lehenengo gasteiztarrak halako zerbait sentitzen zutena". 2011n bi hiriak senidetu egin ziren eta geroztik Derryko biktimen familiar eta lagunek urtero bidaiatu izan dute Euskal Herrira.

Gasteizko lehen ibilaldi "pilotua" 2008an antolatu zuten, Hala Bedi irratiak 25 urte eta Gaztetxeak 20 egiten zituztela-eta. Tour politikoekin, berriz 2010ean hasi ziren eta jadanik 200 pertsona baino gehiagok hartu du parte eta ikasleentzako unitate didaktiko bat ere sortu dute, besteak beste.

Zaramaga auzo langilea epizentroan

Tourraren zati handiena Zaramagan izaten da, duela 41 urte poliziak eraso zuen tokietan barrena. Auzoa frankismo garaian jaso zen eta beste toki batzuetatik etorritako langileen bizitoki bihurtu zen laster: "Gasteizek denbora gutxian bere biztanleria hirukoiztu zuen, langile asko etorri zen, eta horrela uler litezke urte horietako grebak eta atzean zegoen mugimendu asanblearioa".

Baina bisitak ez dira mugatzen horretara, helburua baita jendeari ulertaraztea zergatik eta nola sortu ziren 70eko hamarkadako gatazka sozial eta politiko horiek. Eta horretarako, ezinbestean Frankismoaren errepresioaz hitz egin behar. Hortik ez oso urrun Santa Isabel hilerria dago, faxistek ia 200 lagun fusilatu zituzten hango hormen kontra, tartean Estepan Urkiaga *Lauaxeta* olerkaria 1937ko ekainaren 25ean. Hilerria XIX. mende hasierakoa da –100.000 lagun daude lurperatuta– eta horrek aukera ematen du foruez, Bigarren Errepublikaz edo hiriko familia liberal eta karlisten paper politikoaz ere hitz egiteko: "Ezin dugu egungo betaurrekoekin begi-

ratu, baina jakin beharra dago", dio Martxoak 3ko kideak; *Historia ezagutu, oraina ulertzeko* da euren leloa, hain zuzen.

Etengabe eraldatzen ari den tourra

Urteotan guztiotan ibilbidea eraldatuz joan dira, "espazio publikoa memoriarentzat konkistatu dugun heinean". Hala, elkartearen eta herritarren ekimenez 1976an bost langile hil zituzten tokiak "jantzi" dituzte: mural erraldoia, monolitoa, memoriala... Hurrengo urteetan auzoan poliziak hildako beste hainbat biktimaren omenezko plaka ofizialak jartzea ere lortu dute.

Martxoaren 3ko sarraskiak hiri osoa "markatu" zuen Garciaren esanetan eta belaunaldi berriek badituzte horren inguruko erreferentziak. Azken urteetan borroka sozialen katalizatzaile bilakatu da egun hori, baina gasteiztarrak gogorarazi du ez dela beti horrela izan, eta "duela ez hainbeste" elkarteko kideek Auzitegi Nazionalean amaitu zutela Ertzaintzaren atestatu baten ondorioz.

'OroiTour' ibilbideak azken mende eta erdiko Gasteizko historian barrena bidaia proposatzen du. Urriaren 7ko ARGIA Egunean 1976ko gertakizunak izango ditugu ardatz, eta berariaz prestaturiko joan-etorria egingo dugu Zaramagara. Lander Garcia, Martxoak 3 elkarteko kidea: "Erabat ezberdina da gauzak gertatu ziren tokian azaltzea, pareko eraikin eta hormek beste zentzu bat hartzen dute orduan".

Horregatik jarraitzen dute kalean oroimena elikatzen, garbi izan dezagun duela lau hamarkadako greba handien atzean bazegoela Gasteizen elkartasunean, justizia sozialean eta horizontaltasunean sinesten zuen jende bat: "Hori guztia transmititu egin da eta oraingo herri mugimenduetan ikusten ari gara". ■

» Duela lau hamarkadako greba handien atzean bazegoen Gasteizen elkartasun, justizia sozial eta horizontaltasunean sinesten zuen jende bat, "hori guztia transmititu egin da eta oraingo herri-mugimenduetan ikusten ari gara".

ARGIA EGUNA '17

OROIMENAREN ETA EUSKARAREN ZUTABEAK

Urriaren 7an laugarrenez ospatuko dugu ARGIA Eguna, oraingoan Gasteizen, herri mugimenduen eta euskaltzaleen taupadaz bizi-bizi dagoen hiria. Goizeko egitarauan zita garrantzitsu bat izango duzu: hiri borrokalari eta euskalduna ezagutzeko ibilbide gidatuak.

Bi zutabe antolatu ditugu, biak Gaztetxe ondoko Etxauri plazatik irtengo dira (euria egingo balu Landatxotik). Lehenak 10:30ean egingo du Zaramaga alderantz eta Martxoak 3 elkartearen ***OroiTour*** ibilaldia izango du ardatz. 1976ko sarraskiaren agertokiak ezagutuko ditugu elkarteko kideen eta audiogiden laguntzarekin.

Bigarrena, ***Gasteiz Euskaldunaren ibilbidea***, GEU elkartearen eskutik dator eta 11:00etan irtengo da. Alde Zaharrean barrena, euskarak hirian duen garrantziaz jabetuko gara bereziki ARGIA Egunerako bilduko diren hainbat lagunen testigantzekin.

Ibilbideetan parte hartzeko komeni da aurrez izena ematea:

- E-postaz: **komunitatea@argia.eus** helbidera idatzita.
- Telefonoz: **943 37 15 45** zenbakira deituta.

Estibaliz Alkorta 2018ko 'Euskarak 365 egun' ekimenaz

"EGITASMO HONEK GIZARTEAN EZ EZIK ERAKUNDE PUBLIKO GUZTIETAN IZANGO DU ISLA"

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak hitzarmena sinatu dute. 2018an, Euskararen Egunaren bueltan, egitasmo bat egin nahi dute Euskal Herriko ahalik eta herri gehienetan. Egitasmoaren izenak zehazten du helburua: *Euskarak 365 egun: hizkuntza ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria*. Estibaliz Alkorta HPSko Euskara Sustatzeko zuzendariari eskatu diogu egitasmoa azaltzeko.

Onintza Irureta Azkune
@oirureta
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zergatik prestatu duzue halako egitasmoa?

Hainbat udalerritan gizarte aktibazioan oinarritutako ekintzak bideratzen ari dira: Lasarte-Orian, Agurainen, Arrigorriagan, Donostiako Egia auzoan... Uste genuen momentu egokia zela ekimen horiei guztiei proiekzio nazionala emateko, eta aldi berean, babes soziala eta ekonomikoa emateko.

Aipatu dituzunak ekimen egokiak iruditu zaizkizue.

Ezaugarri berritzaile bat daukate, euskararen aldekotasunetik harago doa, urrats praktiko batera doa, erabileran zuzenean eragiten du. Gizartea aktibatzen du, pertsonak eta erakundeak, helburu horretara begira.

Zein dira helburuak?

Helburu nagusia euskara gehiago erabiltzea da. Beste helburu bat da pertsonak eta erakundeak dinamika berri batera bultzatzea, gonbidatzea.

Bestalde, erabilera areagotzeaz gain, lankidetza berezi batean oinarritutako egitasmoa izatea nahi dugu. Hau da, erabileran eragin nahi badugu, ezinbestean lankidetza sendoa eraiki behar dugu eta lankidetza esaten dudanean hiru planotan ari naiz, batez ere: toki erakundeen eta nazio mailako erakundeen arteko elkarlana; gizarte eragileen eta erakunde publikoen arteko elkarlana; eta euskalgintzaren eta bestelako esparruetan dabiltzan eragileen arteko elkarlana. Beraz, proposatzen dugun egitasmoa berritzailea da, baina baita lana egiteko modua ere. Helburua euskara erabiltzea da, baina baita lankidetzari lotutako lan ildoa eraikitzea ere.

Euskararen aldeko jarreratik euskara erabiltzera eman nahi duzue urratsa. Zehaztu ezazu pixka bat.

Euskara erabiltzea esaten dugunean bi modu ditugu gogoan: batetik, hitz eginez, eta bestetik, hitz egiteko gaitasunik ez duenak dakiena berari euskaraz egitera gonbidatuta. Euskarazko komunikazioa bermatu nahi dugu, baina horrek ez du esan nahi elkarrizketa beti elebakarra izango denik, elkarrizketak elebidunak ere izan daitezke, ulermena bermatuta dagoen heinean. Ulermen aldetik, ezagutza aldetik, gaitasun handia dago, beraz, momentu egokia da horrelako egitasmo berritzailea martxan jartzeko.

Maiatzeko Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketetan euskalgintzako eta erakundeetako eragileei egitasmoa aurkeztu zenieten. Ekarpenak eta sentsazioak jaso zenituzten. Zer azpimarratuko zenuke?

Emaitzak oso positiboak izan ziren, gure harridurarako. Balorazioa uste baino positiboagoa izan zen. Normalean Jaurlaritzak edo HPSk programa handi bat aurkezten dugunean beti egoten da eszeptizismoa, "betikoa, ez da ezer berria", diote. Oraingoan ez nuen horrelakorik sumatu. Ikusten da itxaropena dagoela, gogoa dagoela, oso positiboa izan zen HPS eta Topagunea batera agertu izana Udaltopen. Udalak 2018ko aurrekontuak prestatzen ari dira eta denek nahi dute egitasmo horretan parte hartu.

Alabaina, egia da Udaltopen kezkak ere azaldu zituztela. Batez ere, beldurra edo beldurrarekin lotutako pertzepzio asko zeuden: "Bai, hau oso ondo dago, hau da bidea, baina nola egingo dugu?".

Egitasmoa HPSren eta Topagunearen artean zergatik antolatu duzuen galdetu zuten askok.

Ez ginen propio haiengana joan eta haiek ere ez ziren zuzenean etorri. Topagunea gizarte aktibazioan oinarritutako ekintzak bideratzen ari zen *Euskarak 365 egun* ekimenaren bidez. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzan ikusten genuen, batez ere Lasarte-Oriako esperientziatik abiatuta, horrelako esperientziek eragin zuzena zutela euskararen erabileran.

Topaguneak euskararen elkarte gehienak ordezkatzen ditu, pentsatu genuen solaskide naturala zela eta elkarlanean abiatu gintezkeela. Helburu berdinak partekatzen ditugu eta aldi berean elkarren beharra dugu. Topaguneak sustapen eta lankidetza prozesu bat ireki zezakeen gizarte eragileen artean, eta aldi berean, guk instituzio bezala, erakunde publikoen artean egitasmo honen sustapen eta antolatze lanak egin genitzakeen.

Bestelako ekimenak antolatzeko ere elkarlanera joko duzue?

Udaltopen esan genuen hau egitasmo jakin bat dela, baina etorkizuneko egitasmoei begira badela arnas luzeko lan ildoa ere. Topagunearentzat eta HPSrentzat, bientzat, horrelako lankidetza berritzailea da. Konfiantza giro bat eraiki behar da eta ez du zertan bukatu erronka honekin. Eta ez du zertan Topagunea eta HPS izan, lehen esan bezala egitasmoak instituzio publikoak eta elkarteak lankidetzan jarriko ditu. Guk markoa emango dugu, babes orokorra, lantalde bat jarriko dugu martxan, komunikazio estrategia ere garatuko dugu, baina handik aurrera herri bakoitzak osatuko du koordinazio mahaia, eta egitasmoa bere egin behar du.

Herrietan nola gauzatuko da?

Gure proposamena bideratzaile nagusiak herriak izatea da. Hori gauzatu ahal izateko koordinazioa egon beharko du udaleko euskara zerbitzu eta bertako euskara elkarteen artean. Badakigu zenbait herritan hori ez dela posible izango eta ahaleginak egingo ditugu horrela izan dadin.

Malgutasuna egongo da?

Gutxieneko baldintzak aurkeztu ditugu. Proposamena da 16 urtetik gorakoak izatea parte-hartzaileak, herritarrek kontziente izan behar dutelako euskara erabili (edo erabiltzeko aukera eman) behar dutela 11 egunetan. Dena den, 16 urtetik beherakoek ekimenean parte hartzeko bideak irekiko ditugu. Umeak haien gurasoen bideratzaileak izan daitezke. Haurrak gonbidatuko ditugu baina ez modu aktiboan. Bigarren baldintza Euskal Herrian bizi edo lan egitea da.

Hortik aurrera gutxieneko ulermen maila eduki beharko du erronkan parte hartuko duenak. Udaltopen galdetu zuten ea zer gertatuko den euskara ulertzen ez dutenekin. Helburua ez dugu ahaztu behar: euskarazko komunikazioa egotea. Ulertzen ez dutenei tresnak eskainiko dizkiegu gutxieneko ulermen maila izan dezaten eta "belarriprest" rolean [partaide horrek ez du euskaraz hitz egiten baina ulertu bai, eta parekoa gonbidatzen du berari euskaraz egitera] parte hartu dezaten.

Udazken honetan zer pauso emango dituzue?

Urriaren 7an mintegi bat antolatuko dugu euskara teknikariei eta elkarteei zuzendutakoa. Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak aurreratu ditugun lanen berri emango dugu, eta bestetik, udalen eta elkarteen kezkak eta asmoak argitu nahiko genituzke.

Abenduaren 3an, Euskararen Egu-

VITORIA GASTEIZ green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Zinema

• **"Handia" filmaren emanaldia**
Urriak 5, 20:00
Gorbeia Zinemak. Gonbidapenak behar dira: Gorbeia merkataritza zentroko gerentzian.

Argia eguna gasteizen

Urriak 7, egun osoan zehar hainbat ekintza, Landatxon eta Etxauri plazan.

Oihaneder euskararen etxea

Info+: www.oihaneder.eus
• **Mahai-ingurua: Umorea politikoa da**
Unai Iturriaga - Uxoa Anduaga - Laura Mintegi
Urriak 4, 19:00
• **Solasalean: Andoni Egaña**
Elkarrizketa irekia
Urriak 17, 19:00
• **Hitz adina mintzo: Frisiera, Durko Gorter**
Hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa
Urriak 18, 19:00
• **Dokumentala: Biziminez**
Pablo Dendaluze
Urriak 25, 19:00
• **Musika: Pauline & Juliette**
Eskilarapeko Soinuak
Urriak 26, 19:30
• **Sorkuntza artistikoa: Hysteron**
Nagore Legarreta, Saski-Naski zikloa
Urriak 29, 19:00
•**Gasteiztarrak arraun the world**
Argazki erakusketa
Urriaren 21etik irailaren 21era

Antzerkia

• **"Soka" Tanttaka taldea**
Urriak 25, 20:30. Principal Antzokia. 15
• **Takoidun zapata gorria. Off Local. FIT.**
Urriak, 28, 29, 30 eta 31n, 19:00etan eta 20:00etan. (Zapatari kalea, 93)

Mintzalaguna

Izena emateko epea, urriaren 1etik 23ra
On-line: gasteizkomintzalaguna.eus

Maite duzun hura, euskaraz!

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

nean, aurkezpen soziala egitea nahiko genuke, komunikazio estrategia behintzat landuta izango dugu ordurako. Herriz herri antolatuko diren ekitaldietan 2018ko erronkaren berri ematea nahiko genuke, egitasmoaren filosofiaren berri ematea.

Udazkenaz gain, 2018ko urtarriletik azarora bitarte sustatze lana egingo dugu. Egitasmoa antolatzeko denbora behar genuela pentsatzen genuen, baina era berean hilabete horietan guztietan tentsio puntua mantendu behar da.

2018ko abenduaren 3a eta gero zer?

Erronka 11 egun horietan bisualizatuko da, baina egitasmoak bi zati ditu, jarraipena izatea nahi baitugu. Erakunde pribatu eta publikoek, 2018an, bertako langileak gonbidatuko dituzte erronkan parte hartzera, baina 2019an, erronkan parte hartutako erakunde guztiak gonbidatuko ditugu haien erakundeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko neurriak har ditzaten.

Euskalgintzako eragile batzuk beldur dira orain ere euskalduntzea herritarren ardura izango ote den.

Erakunde publikoek ere erronka handia daukagu erakundeei begira. HPS ez da bakarrik Jaurlaritza, hor dira osasun zerbitzuak, ikastetxeak, Emakunde, Ertzaintza... Egitasmo honek ez du isla izango gizartean bakarrik baizik eta erakunde publiko guztietan eta erakundeok ematen dituzten zerbitzu guztietan. Herritarrei babesa eskainiko zaie HPS eta Topagunearen eskutik, baliabide ekonomikoen bidez eta giza baliabideen bidez. Konpromisoa berriz, biena izango da, herritarrena eta erakunde publikoena.

Erakunde publikoek babesa eskaintzeaz gain eredu izan nahi al dute?

Bai, horixe.

Euskal Herri osoan egingo al da egitasmoa?

Hitzarmena Topagunearen eta Jaurlaritzaren artean egin da lurralde guztietan sustapen lanak egiteko, diputazioek ere

» "Egitasmoan helburua euskara erabiltzea da, baina baita lankidetzari lotutako lan ildoa eraikitzea ere"

» "2019an erakunde publikoak gonbidatuko ditugu haien erakundeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko neurriak hartzera"

jasoko dute diru partida bat, eta udalek ere bai. Nafarroako Gobernua, Euskarabidearen bidez, komunikazio estrategian sartu da. Hasieratik erakutsi zigun ez sustatzaile moduan soilik baizik eta antolatzaile moduan ere parte hartzeko gogoa. Beraz, antolatzaile moduan izango da. Iparraldekoekin (Euskal Elkargoarekin) formalki oraindik ez gara egon, baina badakigu interes handia dutela, lurralde osoan ez bada ere hainbat lekutan egiteko. ■

LA CAIXA

Eskola kirola eta genero berdintasuna

NESKA ETA MUTILEK ELKARREKIN ALA BANANDURIK JOKATU BEHAR DUTE?

Pentsa liteke, berdintasunean oinarritutako heziketa bermatu nahi bada, eredu mistoa dela egokiena. Hala uste du adibidez Itsaso Nabaskues futbolari ohi eta EHUko ikerlariak. Datuek, baina, bestelakoa erakusten dute sarri: elkarrekin jokatzen dutenean mutilek hartu ohi dute protagonismoa eta, gainera, ezin esan daiteke eskola kirolean nesken parte-hartzea areagotzen denik. Hori horrela, gaur gaurkoz eredu bananduaren alde egiten du Ainhoa Azurmendi eskubaloi jokalari ohi eta berdintasun gaietan adituak. Bi elkarrizketatuak bat datoz: hezkidetza oinarritik bertatik hasi behar da lantzen.

Jon Torner Zabala
@jtorner

"Eskola kirolean partaidetza mistoa ezartzeak ez du esan nahi berez emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko modu onena denik, batik bat, sozializazio prozesuan haur guztiek emakume eta gizon izateari buruz ingurutik jasotzen dituzten muturreko mezuengatik, kirol arloak berezko duen izaera maskulinoagatik, eta hezitzaileek hezkidetza lantzeko dituzten mugengatik", irakurri dezakegu *Eskola kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatua: datuetan oinarritutako proposamena* txostenaren sarreran. Eta amaieran: "Eskola kirolean neska-mutilek banatuta jokatu dezaten iritzia mantentzen dugu. Egia da tarteko ereduak oso egokiak izan daitezkeela, esaterako, jarduera berezietan (orientazioan, piraguan, herri kiroletan...) elkarrekin eta taldekako kiroletan banatuta jokatzea. Alabaina, eredu horrek erabateko estrategia edo heziketa eredu baten barruan egon beharko luke". Avento aholkularitza-enpresak egin du txostena, Hernani eta Pasaiako udalen eskari banari erantzunez. Bi udalerriotako eta Astigarraga, Beasain, Zumaia eta Gipuzkoako beste hainbat ikastetxeren jarduna aintzat hartuta, txostenaren egileek diote ez dutela ezagutu eredu mistoak nesken partaidetza handitzea ekarri duen esperientziarik; bai, ordea, kontrakoa eragin dutenak.

Txostenaren ondorio nagusiak harritu egin gaituela kontatu diogu Avento enpresako kide Ainhoa Azurmendiri, ez genuela uste hain argi egingo zuenik neska eta mutilak banatzearen alde. "Ez zara bakarra", erantzun digu. "Jendeak pentsatzen du, berdintasunaren defendatzaile izanik, partaidetza mistoaren aldekoa behar dudala izan. Ez naiz absolutista, eskola kirolaren ingurukoak etengabe errebisatu behar dira, baina gaur gaurkoz, ez dut uste eredu mistoa egokiena denik. Ez gaude erronkari erantzuteko prest".

Baloia, mutiletik mutilera

Kirol ez formalaz hitz egin digu, txikiak garenetik plazer hutsez espontaneoki egiten dugun jardueraz; eta nola, oro har, gizarteko beste hainbat esparrutan bezala kirolean ere, espazio publikoa mutilek hartzen duten gehienetan. Tradizioz gizonen espazioa baita kirola. Aipatu dizkigu sozializazio prozesua, gorputzaren jabekuntza, familiaren eragina kirola praktikatzerako orduan, inguruneak gugandik espero duena, estereotipoak... eta horiek guztiek zer nolako eragina daukaten neskek kirolarekin izango duten hartu-emanean.

Jarduera ez formalean gertatzen den gauza bera sumatu du Azurmendik eskola kirolean ere, taldeko kiroletan bereziki: "Mutilek hartzen dute protagonismoa, eta askotan neskek euren espazioa eztabaidatu gabe uzten dute". Aventoko teknikariek benjamin mailako talde mistoen lau partida behatu zituzten Pasaia-Lezon, eskubaloiko eta futboleko bina. Eta jabetu ziren, besteak beste, pase gehienak mutilen artekoak izan zirela eta hamar goletatik bederatzi eurek sartu zituztela. Halaber, neskek baino iniziatiba jokabide gehiago azaldu zituzten mutilek; esaterako, baloia galdu ostean neskek ez zuten borroka egiten hura berreskuratzeko, mutilek baloia hartzeko keinua egitean orohar azkar etsitzen zuten neskek. "Gizartearen ispilu dira jarrera hauek, emakumeen gorputza eta espazioaren jabekuntza ezaren ondorio", dio txostenak.

Ainhoa Azurmendi: "Neskak ere konturatzen dira haienganako interesa ez dela mutilenganakoa bezain bestekoa, eta barneratzen dute agian kirola ez dela nesken berezko eremua. Ondorioz, kirola mutilek baino errazago uzten dute".

Hezitzaileak hezi beharra

Azurmendik azaldu digu guraso askok agertu diola eredu mistoaren aldeko iritzia, euren alaba koadrilan-eta mutilekin batera ibilita, ulertezina zaielako eskola kirolean bananduta aritzea. "Gaurko ogia biharko gosea, ordea, kadetetara heltzean ezin izango dutelako elkarrekin jokatzen jarraitu", esan digu. Eredu mistoa jarri nahi bada, kirol ibilbide osoa irauli beharko litzatekeela uste du Azurmendik, eta ez gaudela puntu horretan. Esaterako, ezin esan daiteke hezkuntza sisteman genero ikuspegia barneratuta dagoenik. "Zoritxarrez, genero ikuspegia ez dago curriculumean erabat txertatua".

Eskola kirolaren inguruan diharduten aditu, irakasle, hezitzaile eta begiraleek, hezkidetzaz nahikoa ezagutza ez dutela dio Azurmendik. Kontua ez da soilik neska eta mutilen parte-hartze orekatua bilatzea; osagai asko dira aintzat hartu beharrekoak: komentarioak, begiradak, bromak, jokalarien sexu joera, jazarpen egoerak kudeatzea... "Hezkidetza ez da neska eta mutilak nahastea eta kitto". Halaber, badira mutilen taldeetan jokatu baina eredu mistora pasa nahi duten mutilak, "agian ez direlako identifikatzen maskulinitate lehiakorraren ereduarekin". Zentzu horretan, aipatu behar da mutilek ere mutilen artean bazterketa bizi dutela, arrazoi diferenteak medio. "Ez dut esan nahi emakumeok lehia gogoko ez dugunik e!", argitu digu.

ITSASO NABASKUES

“GALDERA EZ DA EREDUAK BEREZITUA ALA MISTOA IZAN BEHAR DUEN, BAIZIK ETA INDARREAN DUGUNA APROPOSA OTE DEN HEZKIDETZAN SAKONTZEKO”

Real, Athletic eta Oiartzun futbol taldeetan jokatu du Itsaso Nabaskuesek, lesio batek erretiroa hartzera behartu zuen arte. Egun, genero berdintasunaren inguruko ikerketa-lanari lotua dago.

Emakumeen futbolaz eta eskola kirolaz hainbat iritzi artikulu plazaratu duzu. *Eskola kirola: Zeinentzako kirola?* izenekoan (Klitto!, 2016-10-25) kritiko agertzen zara, besteak beste, 10 urterekin neska eta mutilak bereiztearen inguruan.

Zergatik banandu, eskolan denak batera baldin badaude eta gorputz hezkuntza elkarrekin egiten badute? Argi dago hezkidetzari dagokionez lan eskerga dagoela egiteke, badela zer eztabaidatu: Soin hezkuntzan nesken eta mutilen parte hartzea berdina al da? Ala mutilek dute protagonismoa? Eskola kirolean ematen diren jarrerak errepikatzen al dira han ere? Beharbada, eskola kirolean garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke hezkidetza sustatzeari, eta ez hainbeste futboleko, saskibaloiko edo eskubaloiko arauak ikasteari.

Hiru kirol “tipiko” horiek egin behar direla nork erabakitzen duen galdetzen zenuen aipatu artikuluan…

Nire ustez galdera ez da eskola kirolak berezitua ala mistoa izan behar duen, baizik eta egiten ditugun jarduerak aproposak ote diren neska eta mutilen parte hartze hezitzailea bermatzeko, hezkidetzan sakontzeko. Eta, agian, hiru kirol horiek ez dira egokienak horretarako. Ez dago legerik behartzen duena eskola kirolean hiru kirol horiek egitea. Zergatik dute orduan horrenbesteko garrantzia? Helburu hezitzaileez gaindiko interesak al daude tartean?

Azken finean, elkar banantzean, neska eta mutilek ikasten dute bereziturik behar dutela egon. Egia da eredu mistoa gaur gaurkoz ezin daitekeela maila eta kirol guztietan txertatu; esaterako, eskola

kirola 16 urtera arte luzatzen delarik, klubetan ere elkarrekin joka genezake, baina biologikoki oso desberdinak garela diote eta…

Hori da kontua. Ba al du zentzurik neska eta mutilek elkarrekin jokatzea, 16 urterekin banandu egiten badituzte?

Bananduko naute baldin eta errendimenduaren bidea hartzen badut. Aisialdi talde batera joanez gero mutilekin batera jokatuko nuke palan. Izotz hockeyan elkarrekin entrenatzen dute neska eta mutilek, atletismoan… Kontuan hartuta biztanleen %10ak jotzen duela errendimenduko kirolera, noren interesak behar dira ase, %10 horrenak ala gainerako %90arenak?

Dena den, gauzatxo bat: aintzat hartuta eskola kirolean monitore gisa izan dudan esperientzia [Lezon], eta generoa aldagai oso inportantea dela onartuta ere, esango nuke, orohar, norberak duen abilezia-ren araberakoa dela talde barruan izango duen protagonismoa; alegia, trebeagoa izan ala ez, bereziki horren menpe dagoela baztertua ala integratua izatea. Bestetik, jende asko senti daiteke baztertua, urritasun bat duelako, sexu-joeragatik…

Monitorearen figura aipatu duzula-eta, hezkidetzan nahikoa trebatuak daudela uste al duzu?

Hain justu horri buruzko ikerketa egiten ari gara Gasteizko campusean, soin hezkuntzako irakasle eta ikasleekin, eta ikusi dugu inklusioaren eta abileziaren inguruan nozio tradizionalak dauzkatela, eta ez direla gai sentitzen etorkizuneko –begiraleak direnean– erronkei erantzuteko. Jarrera positiboa agertu arren mugak dauzkate. Zergatik aritu behar dira neska eta mutilak bananduta? Nola bultza daiteke abilezia desberdineko umeen parte-hartzea?. Gauza askori buruz hausnartu behar dugu.

Bide batez: monitoreei “entrenatzaile” deitu ohi zaie; eskola kirola lehiarekin lotzen dugula erakusten du horrek.

Eskema batzuk barneraturik ditugu oso, subkontzientean iltzaturik.

Hala da. Ez dugunez ezagutzen gauzak egiteko beste eredurik, ondorioez hain kontziente ez garenez, aldatzeko beharrik ere ez dugu ikusten. “Neskei ez zaie kirola gustatzen”. Hori ez da horrela, ez da zerbait genetikoa, ikasitakoa baizik. Subkontzientean dauzkagun gauza horiek dira arriskutsuenak, ez garelako ondorioez ohartu ere egiten.

Kirola, futbola zehazki, tresna eraginkorra izan daiteke balore hezitzaileak transmititzeko, egoki landuz gero bederen…

Hala da, ez dut esaten futbolari boikota egin behar zaionik, baizik eta kontziente izan behar dugula hark duen kutsu maskulinoaz, eta lan egin behar dela balizko jokaera okerrak zuzentzeko, inor baztertua ez sentitzeko… Harremanetan sakondu eta estereotipoak iraultzeko tresna eraginkorra izan daiteke, baina ez abileziaren arabera soilik egituratzen baldin bada.

Askotan, hezkidetzan sakondu aldera, futbola, saskibaloia eta eskubaloiaz gain beste kirol batzuk ere landu beharko genituzkeela hitz egin ohi dugu lankideon artean, baina guraso batzuek errezeloz hartzen dute. Pena da.

Hazien tramankuluak

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Goiloraren (Epilobium hirsutum) haziak hegan egiteko tramankuluak prest, haizearen zain.

Fruitu sasoia da: gaztaina, hur, intxaur, ezkur, maspil.... Gure paisaietan ugarienak, hala ere, mahatsa eta sagarra. Baliatzen ditugun fruitu etxekotutakoez hitz eginda, alegia. Pentsatuko duzun bezala, hor, han eta hemen, denean, milioika fruitu sortzen ari dira etengabe. Fruitu horiek hazien bidaia-ontziak dira. Haziak hedatzeko eta ahalik eta urruneneko toki egokiren batera iristeko tramankuluak dira fruituak. Tramankulu horiek bidea emango diote hazien etorkizunari: animaliaren batek jan eta egunetara izango den beste lekuren batean botatzea helburu, usain, aho dasta, kolore eta abar aproposak garatuko ditu fruituak. Haizeak eraman beharko dituenak hegal, hego, luma edo jausgailua erantsiko dio haziari. Izan ere, hazia da dena. Denaren etorkizun guztia, sekula berdina izango ez dena. Hazia eman duen landare amak ez du ezagutuko bera bezalakorik, berria, eta hazia hori da, berri hori ama baino hobea izateko aukerak sortzea. Landare batek izugarrizko hazi pila eman dezake urtero, eta bakoitza landare aldaera berri baterako bidea da.

The Botany of Desire: A Plant's-Eye View of the World (Random House, 2001) gutxi gorabehera "Desiraren botanika: munduari buruzko landareen ikuspuntu bat" liburu ederrean Michael Pollanek sagarrondoa aipatzen du (*Malus x domestica*), eta hari buruz honela dio: "Beste edozein ezaugarriren gainetik, sagarrondoaren aldakortasun genetikoak —bere alde basati sahietsezinak— ematen dio ahala New Englanden, Zeelanda Berrian, Kazakhstanen edo Kalifornian, leku zeharo desberdinetan etxean bezala sentitzeko. Sagarrondoa edozein tokitara joanda ere, bere ondorengoek sagarra denari buruzko halako aldaera aukera proposatzen dute –sagar bakoitzeko gutxienez bost, arbola bakoitzeko milaka–, eta horietako pare bat behinik ia behartuta dago fruitu arbolaren etxetzakoan aurrera egiteko behar diren ezaugarriak izateko".

Hau da, hazia, sagar bakoitzean bost bat, sagarrondo bakoitzean milaka, sagar mota berri bat sortzeko aukera da, eta, erraz nahasten denez, lur zeharo desberdinetara egokitzeko gaitasuna hartzen du.

Hurrena, hazi bat ahoratzen duzunean, jakizu: osorik badoa landare berribat izan daiteke; *Phaseolus vulgaris*, babarruna bezala kosk txikitzen baduzu aukera galdu bat. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Hur zuhaitz bat dugu eta urtero ale mordoa izaten ditu, baina heldu ahala guztiak erortzen dira zulo txiki batekin, "hutsik", usteldutа... Zer izan daiteke? Sagarrondo eta aranen alboan dago.
Ana Zarandona (Etxebarria)

Kaixo Ana. Hurraren gurgurioa da, *Curculio nucum.* Hurraren arazo handiena da. Intsektu txikia da. Negua har forman igarotzen du lurpean, udaberrian heldu bezala atera eta hur txikiak eta hosto eta kimu berriak jaten ditu. Maiatza eta iraila artean helduak ibiliko dira, arrautza berriak hur samurretan sartuko dituzte, bakoitzean bana. Haietan harra sortuko da eta hurra barrutik jango dute. Gero zulo bat egin eta aterako dira lurpera joateko, negua pasatzera. Lurpean hiru urte egon daitezke. Toki hezeak eta freskoak maite dituzte.

Ez da erraza borroka. Tratamenduak intsektua arrautzak jartzen dabilenean egin beharko lirateke, ekologikoa: "Neem" olioa + xaboia. Garai batean goizean goiz edo ilunabarrean, bero handienak joandakoan hur adarrak maindire zuri bat azpian jarrita astinzen ziren, gurgurioak bildu eta hiltzeko.

Adar artean laranjak erditik ebakita jarri eta bertan luze aritzen omen dira zurrupatzen, biltzeko aukera emanez...

LANDAREAK LANTZEN

IRAKURLEAK OSATU BEHARKO DUEN AGENDA-GIDA-LIBURUA

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Labetik atera berri du ARGIAk *Landareak Lantzen*, baratzerako urte osoko gida-liburua eta agenda. Lan berriaz galdetu diegu bi egileei: Jakoba Errekondori eta Antton Olariaga marrazkilariari.



Irailaren 20an Astigarragan egin zuten gida-liburuaren lehen aurkezpenean, bi egileak.

Jakoba Errekondo: "Osatzen duenak kriston entziklopedia edukiko du"

"Batetik, urte guztian landareekin egin behar diren lanen gaineko egutegia aurkituko du irakurleak, lau arlori begirakoa: baratzea, frutarbolen baratzea, loreen baratzea eta basoa. Hilabete bakoitzak sasoi horri buruzko sarrera dakar, eguraldi ikuspegitik zenbat eguzki eta zenbat argi ordu dauden eta horri lotuta zein lan egiten diren azalduz. Bestetik, hamabostean behin bi lan aurkezten dira gehiago zehaztuta: ez da 'orain udako txertoa egin behar da', baizik txerto hori nola egiten denaren azalpen zabalagoa, Olariagaren irudiarekin lagundua".

"Lehen aldiz Euskal Herriko mapa klimatikoaren proposamena ere egin dugu, eta bestelako informazio orokorra ere eskaintzen da liburuan: ilargiari lotutako informazioa, baratze bat egiteko oinarrizko zortzi urrats, ongarrien osaketa, landarea jartzen dugunetik jaso arte zenbat denbora pasatzen den... Informazio orokor horretaz guztiaz gain, nire ustez oso garrantzitsua den eta argitaratzen lehen aldia izan den Euskal Herriko ekoizle ekologiko guztien zerrenda ere osatu dugu".

"Liburua agenda bat da, azken batean, baina bereziki baratzerako prestatua dagoena, norberak egun bakoitzean zein lan egin dituen apuntatzeko. Jendeak dio: 'Iaz sekulako tomateak izan genituen', eta galdetzen diozunean ea noiz landatu zituen, 'a, ez dakit' erantzuten du. Askok ez dakite zer egiten duten eta gero gauzak zergatik ateratzen zaizkien ongi edo gaizki baratzean. Bada, ikasten joateko bakoitzak informazioa biltzea garrantzitsua da. Bizpahiru urtetan hori osatzen duenak kriston entziklopedia edukiko du".

Antton Olariaga: "Lur gainean eta azpian gertatzen dena *apasionantea* iruditzen zait"

"Jakobak testu bidez azaltzen duenari irudi bidez lagundu diot nik, berea azpimarratu edo azaltzeko. Ilustrazioen oinarria, beraz, testuan dago. Ilustrazio handiak eta txikiak egin ditut, handietan hilabete bakoitzeko lan edo egitekoak irudikatuz. Batzuetan, ordea, lanen bat egitean, zeozer ereitean adibidez, emaitza izaten dugu presente, ereiten dugun hori bukaeran zer izango den, horrekin amesten baitugu. Liburuan, zenbaitetan, jolas egin dut espazioarekin eta denborarekin, emaitza hori irudikatuz. Alde horretatik oso entretenigarria eta dibertigarria izan da lana, irakurleari pista txikiak ematea".

"Ilustrazioak egiten ditugunok beti harremana izan behar dugu idazlearekin edo gaia proposatzen duenarekin, konplize bihurtzen gara onerako eta txarrerako. Jakobak eta biok hitzaldiak elkarrekin eman izan ditugu lehenagotik *Altza Porru* liburuaren harira, asko ikasi dut eta hurbildu egin naiz bere hizkuntzara, konplizitate bat lortu dugu hor. Lur gainean eta lur azpian gertatzen dena niri ere *apasionantea* iruditzen baitzait, *marabilla* handi bat dira fenomeno horiek guztiak, eta marrazkiak egiteko estimulu dira niretzat".

"Guk erein egin dugu liburua, irakurleak orain hori handitu eta bete egin behar du, zirriborroekin, apunteekin, bakoitzaren eskemekin, datuekin... Atrebitu zu ere bertan marrazkiak egitera! Marrazten ez dakiela dioena gezurtero handi bat da...". ■

LIBURUAREN HURRENGO AURKEZPENAK

Irailak 28: Donostia

11:30ean baserritarren Bretxako azokan. Itxaro Borda, Jakoba Errekondo eta Antton Olariagak aurkeztuko dute liburua. Baratzeari buruzko galderak egiteko eta liburua egileek sinatuta eskuratzeko aukera.

Irailak 28: Azpeitia

18:00etan Kimu Baten egoitzan. Jakoba Errekondok gida-liburua aurkeztuko du eta ondoren baratzeari buruzko kontsultategia egingo du. Liburua sinatuta eskuratzeko aukera.

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | *KIMUTX LIBURUA* | 1

Izaki mitologikoen eskolan jolastuz eta kantatuz

KIMUTX proiektuaren asmo nagusia, zero-hamabi urte bitarteko haurrek, eguneroko ekintza zehatz batzuk modu alaian, jostagarrian eta maitakorrean gauzatzen laguntzea da, burututako jarduerak Euskal Herriko kulturaren testuinguruan kokatuz. Horretarako, kantuan oinarrituko gara, batez ere, honek duen balioagatik eta ematen dituen onurengatik. Hala ere, helburua lortzeko hiru baliabide erabiliko dira; musika, doinu eta erritmo egokietan; hizkuntza, bai bertsotan, bai ipuinetan islaturik; eta irudiak. Haurrak munduari zabalik dauden pertsonak dira, eta beraien baitan daude gaitasun eta erantzun guztiak. Maitasunez beraien jardun askean oinarrituz esperientziak eskaintzen dizkion giro eta inguruneak sortuz, umearen erritmoa errespetatuz eta haurraren behar eta interesetatik abiatuta, ingurua ezagutzen lagunduko dion giroa sortzea da lan honen oinarrizko helburuetako bat.

Eragile hau hobeto ezagutzeko:

KIMUTX

Liburuak erosteko: www.argia.eus/denda
Liburuak ezagutzeko: www.kimutx.eu

#autoeraketa
#sormena
#hezkuntza
#kultura librea

Urriko sariak

1

Kimutx liburuak
4 ale

2

Ekologistak Martxanen "Euskal Herria: ezkutuko zorra"
4 DVD

3

Mugarik gabeken "Defensoras: emakumeon eskubideen alde"
2 elkarrizketa liburuxka

4



Bilgune feministaren "ETEN tratu txarrak diskoa"
2 KD

Parte hartzeko: ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

ARGIA Eguna Gasteizera bidean da

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ondarroan oraintxe ari nintzen nire nortasun agiri arrotza jaurtitzen, eta dagoeneko pasa da urtebete hirugarren txapelketa hartatik. Eta laugarrenerako zita gertu dugu dagoeneko. Urriaren 7an izango da ARGIA Eguna Gasteizen, ziur jakinaren gainean zaudela, irakurle. Pentsatuko duzu, "jakingo ez dut ba, ematen ari zareten latarekin!".

Egun honen bueltako informazio-dosi txikiak aspaldi hasi ginen botatzen, baina orain jakin beharreko guztia azalduta, ez duzu aitzakiarik izango Arabako hiriburura ez gerturatzeko. Eta zergatik Gasteiz, zergatik Araba? Erantzundakoak gara lehen ere txoko honetan noizbait, baina azkar eta labur esateko, zer ederragorik herri mugimenduz eta euskaltzalez bizi-bizi dagoen hirian gure lekutxoa egitea baino?

Alde Zaharra izango dugu topaleku, nahiz eta Zaramaga aldera ere egingo dugun bidetxoa, Martxoak 3 elkarteak antolatutako OroiTour memoriaren bisita gidatuak eramanda. Horrekin ekingo diogu egunari. Jarraian GEU elkarteak prestatutako ibilbide gidatuarekin Gasteiz Euskaldunaren ibilbidea egiteko aukera izango dugu Alde Zaharrean bertan. Bi kasuetan parte hartzaile kopurua mugatua izango da eta izena ematea komeni da beherago aipatuko ditugun helbide edo telefonoa baliatuta.

Gasteizko gizarte mugimenduetako kideekin antolatutako egunean urteroko zitak ere ez dira faltako: haurrentzako jolas hezitzaileak, hurbileko produktuekin egindako herri bazkaria, umorea, musika, nortasun agiri arrotzen jaurtiketa txapelketa aski ezaguna... Eta noski, izango dugu tarte handia solaserako eta hausnarketarako. Batzuk filosofia sakonagoetan murgilduko dira, zenbaitek nostalgia puntuaz lagun zaharrarekin garai bateko historiak oroituko ditu, edo beste batzuk garagardo baten bueltan momentuan ezagututako Argia zalearekin komentatuko dituzte indar eta ahulguneak. Guztiak baliagarriak komunitatearentzat. Guztiok pizten baitugu ARGIA.

Eta ARGIA guztiok egiten dugunez, guztiontzako txokoa izango da aurten Gasteizkoa; haur, zahar ala gazte. Gonbidapena luzatuta, beraz, ondo gorde urriaren 7ko data eta bertan ikusiko dugu elkar.

Oharrak: bisita gidatuetan edo herri bazkarian izena emateko idatzi komunitatea@argia.eus helbidera edo deitu 943-37 15 45 zenbakira. Landatxon izango da jaia, baina jolas hezitzaileak ondoan dagoen Etxaurin egingo dira. Ikusi egitarau osoa argia.eus-en. ■

Jarraitu Katalunia ARGIA.eus-en

Webgunean zuzeneko jarraipena egiten ari gara. Begi kolpe batean erraz ikusiko dituzu denbora lerroan izan diren gertakizun garrantzitsuenak, artikulu interesgarrien erreferentziak eta ARGIAko kazetarien analisiak eta argazkiak.

Jarraitu Bertsolari Txapelketa Nagusia ARGIAn

Kepa Matxain eta Kattalin Minerrek egingo dituzte Bertsolari Txapelketako saio guztien kronikak. Astelehen goizetan argia.eus-en izango dituzu irakurgai, eta tarteka batzuk astekarian, "Zuzeneko emanaldia" atalean (50. orrian); esku artean duzun zenbaki honetan duzu lehen kronika irakurgai.

Iraileko sarituak

- **TRIBIAL FEMINISTA:** Irati Brabo (Markina-Xemein), Joseba Berriotxoa (Zornotza)
- **TXAKUR GORRIA:** Justo Ezenarro (Bilbo), Leire Elizagarai (Gasteiz)
- **ZEIN DA ZEIN:** Joseba Zarate (Bilbo), Eneko Iriondo (Legazpi), Olatz Usobiaga (Donostia), Ixabel Jauregi (Azkoitia), Alazne Gonzalez (Lazkao)
- **JOXEMI ZUMALABE, Bor Bor (K), Herri jakintzen laborategia:** Ibai Fresnedo (Hernani), Joxemari Muxika (Arrasate), Andoni Mitxelena (Donibane Lohitzune)

KANADAKO LEHEN BELTZ **EUSKARADUNA**

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Aurten, Beltzen Historiaren Hilabetea aitzakia, Kanadako posta zerbitzuak Mathieu Da Costaren omenez ateratako zigilua.

Ipar Amerika, XVII. mendeko lehen urteak. Mathieu da Costa egungo Kanadako ekialdeko kostaldera iritsi zen lehen pertsona beltz librea izan zen, Kanadako Ondarearen Institutuaren arabera. Ez dakigu non eta noiz jaio eta hil zen Da Costa. Dakiguna da afrikar jatorrikoa zela, interpretea zela, eta Pierre Dugua de Bots eta Samuel de Champlain kolonizatzaile frantziarrentzat lanean aritu zela. Frantsesa, portugesa, nederlandera eta euskara –zehazki, algonkin-euskara pidgina– menderatzen omen zituen eta, jakina, zena zelako ama hizkuntza, horren berri inon jaso ez arren.

Historialarien arabera afrikarrak XV. mendearen amaieran hasi ziren portugaldarrentzat interprete lanean, eta handik mende batera, europarrak Afrika geroz eta hegoalderago esploratu ahala, herbeheretarrentzat, frantsesentzat eta ingelesentzat. Beharbada, horregatik hitz egiten zuen Da Costak frantsesez, nederlanderaz eta portugesez.

Baina ez dakigu nolatan menderatu zuen algonkin-euskara pidgina, San Laurendi ibaitik gorakoekin interprete lanak egiteko. Huraxe baitzen lurralde haietan europarren eta bertakoen arteko komunikazio-tresna nagusia. Euskal baleazaleak 1520ko hamarkada inguruan iritsi ziren Ternua eta Labrador inguruetara eta hango biztanleekiko harremanetan mikmakerako, innerako eta euskarazko hitzez osatutako pidgina sortu zen –gaskoierazko ukitu batzuk ere ba omen zituen–, gerora kolonizatzaile frantziarrek ere erabiliko zutena. Da Costak, beharbada, Europan ikasi zuen euskara edo, zuzenean, pidgina. Edo, agian, Amerika iparraldean bertan ikasiko zuen, jardunean zela.

1607ko otsailean edo martxoan Europan zen berriro interprete afrikarra, dokumentu batek jaso baitzuen Pierre Dugua de Monsen idazkaria haren bila joan zela Amsterdamera. Itxuraz, herbeheretarrek frantziarren zenbait itsasontzi atzeman eta Da Costa bahitu zuten. Hortik ondorioztatu dezakegu, ordurako Kanadako kosta atlantikoan lanean ibilia zela. 1608an Da Costak kontratu bat sinatu zuen Nicolas de Bauquemare normandiar merkatariarekin, hiru urtez "Kanadako, Akadiako eta beste edonorako bidaietan" itzultzaile lanak egiteko. Ez dakigu berriro ontziratu zen, baina kontratu osoa behintzat ez zuen bete. 1609ko abenduan Mathieu Da Costa Le Havren preso zegoen "lotsagabekeria ekintza" bat medio. Eta handik aurrera ez dago haren arrastorik. ■

Erromatarren urpeko teknologia

Urpekari profesionalen lehen taldea erromatarrek sortu zuten, *urinatores* delakoek osatua. Armadako zerbitzu berezi horren zeregina, gerra garaian, etsaien ontziei sabotajea egitea zen (aingurak eta txikotak askatzea, urpean oztopoak jartzea...). Bake garaian, berriz, ontzi-hondarrak eta bestelako ondasunak berreskuratzeaz arduratzen ziren. Eta apnea lehiaketak ere egiten omen zituzten. Urpean ahalik eta ondoen ikustea funtsezkoa zen, eta, betaurrekorik ezean, asmakizun bitxia erabiltzen zuten: ahoan olioz bustitako belakia eramaten zuten. Tarteka belakiari kosk egiten zioten, olioa aska zezan eta, hala, ikuspena hobetuko zuen pantaila bat eratu zedin, olioaren errefrakzio indizea eta giza begiarena oso antzekoak baitira. ■

PAGOA
kafe antzokia
OIARTZUN

LITERATURA ETA
MUSIKA EUSKARAZ

Neighbor & Goiatz Labandibar

Janne Teller "Ezer Ez" liburuaren berrirakurketa

2017
URRIAK
8
19:00

PAGOA
kafe antzokia

PAGOALDEA 7, 20180
OIARTZUN
www.pagoa.eus

ORDUTEGIA:
OSTIRALA ETA LARUNBATA
17:00 - 06:00

T. 619 421 153
kafeantzokia@pagoa.eus
@PagoaAretoa

A: 6€
T: 8€

OIARTZUN: Amazkar, Elorsoro, Pagoa Kafe Antzokia.
DONOSTIA: Donosti Rock.
ERRENTERIA: Arkaitza Taberna.
ONLINE: Ticketmaster, Ticketea, Colectivia, Mauka, Oferplan, Kutxabank.

berria
ARGIA
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
SEGURA IRRATIA F.M. 89,2 SEGURA (Gipuzkoa)
EUSKAL GARAGARDOA
EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

MURSEGO

“Konfort eremutik ateratzen zaituen artea da benetan eraginkorra”

Bizikidetzaren alde eta aurreiritzi arrazisten zein klasisten aurka egindako diskoa da *100% Oion*. Mursegoren arrastoa galdu gabe, letra politiko argiak dituena. Diskoa osatu bitarteko prozesuaz hasi, eta hizketagai gehiago ere sortu dira: musikaren ahalmen mobilizatzailea edota tradizioa ulertzeko modua, esaterako.

Kepa Matxain
@kmatxain
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

“Hustuta, baina pozik” bukatu du *100% Oion* proiektua Mursegok. “Eskerrak Ibon RG eta Ander Barriuso ondoan izan ditudan, ze nik jota amaitu dut”, dio. Lauso oroitzen du dena hasi zenekoa, bai baitira ia bi urte ordutik. Askorik pentsatu gabe eman zion baiezkoa Idoia Zabaleta bitartekariari. “Asko miresten dut, eta berarekin lan egin nahi nuen”. Gero ezagutu zituen proiektuaren xehetasunak: nola baden Komanditario Berriak izeneko ekimen bat, Daniel eta Nina Carasso Fundazioarena: “Garai batean elizak edo erregeek bakarrik zeukaten artelanak enkargatzeko ahalmena. Ekimenak, aldiz, gizarte zibilari eman nahi dio botere hori, kolektibo desberdinek dituzten beharrak asetzeko”. Oiongo bizikidetza hobetzea helburu zuen proiektuak jaso zuen fundazioaren laguntza, berari proposatu zioten disko bat osatzea, eta orduan hasi zuen bileraz, Whatsappez, buruko minez eta une ederrez josita ko aldi bat, orain gutxira arte luzatu dena.

Zergatik Oion?

Mugako herria da. Bertako askok Logroñon egiten du lan. %21eko langabezia tasa dago, ia gazteen erdiak ez du lanik. Etorkin asko dago, batez ere pakistandarrak, arabiarrak eta ijitoak. Eta elkarbizitza arazo handiak dituzte. Adibidez, eskola publikoaren eta ikastolaren arteko gatazka oso grafikoa da. Parez pare daude, hesi batek banatzen ditu. Publikoan daude etorkin guztiak, eta ikastolan gainerakoak. Baina bertakoen artean ere dena dago polarizatuta: edo zara euskalduna, edo zara *pepero* bat. Hori bai, *pepero*ek haurrak ikastolara eramaten dituzte, etorkinez josita ko publikora ez eramateagatik. Eta panorama horretan sortzen dira islamofobia, estereotipo negatiboak –hala nola eskola maila jaisten dutela, ospitaleak kolapsatzen dituztela, eta abar– eta *Zurrumurru, zurrumurru* kantan aipatzen diren beste hainbat kontu.

Ze pauso eman dituzu kantak osatzeko?

Oiondarrekin hainbat bilkura egin ondoren, Idoia Zabaletak eta biok fitxa bat osatu genuen, ze kanta mota egin nahi genituen zerrendatuz: arabierazko haur kanta bat, zurrumurruen aurkako bat, tekno-jota bat… eta gero pentsatu genuen herriko ze kolektibok parte har zezakeen. Orduan jakin genuen bertso eskola bat zegoela, edo Irule kultur elkartea –trikitia, txistua, dantza eta abar erakusten dituena–, rock taldeak, gazte asanblada… Iazko uda ostean Whatsapp bidez funtzionatzen hasi ginen, eta haur kanta arabiarra hautatzerakoan, emakume musulmanek egungo pop kantak bidaltzen zizkidaten, oso edulkoratuak. Nirekiko pentsatzen nuen: hau ez dut egin nahi. Gero elkartu ginen Manolo herriko jakintsuarekin, eta hark kontatu zizkigun zeintzuk diren Oiongo ohiturak.

Haren ahotsa sartu duzu kanta batean.

Hori da. Asko gustatzen zait prozesu hori, aitona bati entzutea eta informatzea. Era berean, bildu ginen emakume arabiarrekin. Eta pixkanaka, konfiantza sortu ahala, galderak egiten hasi nintzen, zer den emakume musulmana izatea, nola bizi duten zapiaren auzia… adibidez, ohartu nintzen *Korana* autolaguntza liburu bat dela beraientzat, zentzurik onenean. Eguneroko bizitzan laguntzen die. Esaten die nola tratatu bizilagunak, nola hezi seme-alabak. Goibel daudenean Koranera jotzen dute lasaitasun bila. Irakurri zizkidaten pasarte oso politak. Nik San Blasak eramaten nizkien. Badakizu, jendea tripetatik irabazten baduzu…

Beren kulturan barneratzeko aldi bat egon zen, beraz.

Bai. Bilera horietako batean kantatu zidaten *Tala al badru aleina* kanta, aurrez Whatsappetik bidali zidaten bat, Holandako koru batek kantatuta. Orduan ez bezala, kanta entzutean beraien ahotan, korridorean zehar txaloka eta oihuka zebiltzalarik, sekulako indarra zeukala iruditu zitzaidan. Unean bertan esan nuen: hau da kanta. Melodia oso itsaskorra zen, oso ederra. Baina, zer diren gauzak, *Korana*k ez die uzten publikoan kantatzen. Musika batez ere ezkontzekin eta antzeko ospakizunekin lotuta dago. Edo bestela da zerbait etxekoa edo intimoa. Kantatu dezakete, baina asko jota bizpahiru instrumentu erabilita, laguntza gisa. Guk, ordea, umeek eta emakumeek kantatzea nahi genuen. Beraz, arazo bat geneukan. Esaten genien kausa on baten alde zela, azkenerako beraiek ere ohartu ziren, eta bukatu zuten diskoan eta aurkezpenean kantatzen. Gogorra bezain ederra izan da proiektua.

Zeintzuk izan dira unerik zailenak?

Adibidez, *Óyenos Oyón*-ekin gertatu zitzaiguna. Kexen koru bat egin nahi genuen. Zer den hori? Ba egoera batek sortzen dizun amorru guztia bideratzea kantatzera, eta era horretara amorrua energia positibo bilakatzea –Helsinkiko ekimen batean oinarritu ginen–. Galdeketa kolektibo bat egin genuen herrian. Kartulinazko postal batzuetan bi galdera idatzi genituen. Alde batean, zer aldatuko zenuke zure herrian? Bestean, Oion kanta bat balitz, ze kanta litzateke? Postalak utzi genituen udaletxean, tabernetan, eskoletan, kultur etxean… 200 kexa inguru jaso genituen, eta horietan oinarrituta idatzi genuen letra. Herriko korua zen kanta hura kantatzekoa, baina letra bidali genienean sekulakoa piztu zen. Koruko partaide batzuek ez zituzten kexak onartu: "Nire herriak gaizki usaintzen du", "ez dago deus egiteko"… halakoak ez zituzten ulertzen. Nola esan halakorik hainbeste maite duten herriaz? Ez zuten jakin distantzia hartzen eta autokritika egiten. Zuzendariak deitu zidan esanez korua ia desegin egin zela, baina berak erabat babesten zuela proiektua. Letra udaleko plenora eraman zuten. Batzuek ospe txarra zabaldu ziguten herri osoan. Egiten duzu sekulako lana kanta idazten, grabaketa gertu dago, eta bat-batean hori. Oso gogorra izan zen. Azkenean, kaleko jendea bilatu behar izan genuen korurako. Eta hori izan zen politena: konturatzea gelditu zen jendeak benetan sinesten zuela proiektuan, astindu genuela herria, eztabaida sortu zela, zer esana eman genuela, nolabaiteko mugimendua egon zela, eta horrek guztiak proiektua ikusarazteko balio izan zuela.

Unerik ederrenak une gogorrei lotutakoak izan dira, hortaz.

Asko bai. Aurora kantariekin ere izan genuen arazo bat –Oionen, auroroak kantatzera irteten dira Errege egunaren, Bikendi deunaren eta Done Anastasioren bezperan–. Jatorrizko letra bidaltzean, erantzun ziguten haurrentzako egina zirudiela, ez zela ulertzen, ez zitzaiela gustatzen, eta ez zutela kantatuko. Entseguaren bezperan. Azkenean, zuzendari ardurak hartu zituenari esan genion idazteko bere gustuko letra bat, eta hortik aurrera giroa pixkanaka hobetu zen. Gaupasa egin zuen biharamunerako letra idazteko. Oso letra polita, jatorrizkoa kontuan hartuta idatzia. Hunkitu egin nintzen, tipoak gugan sinetsi zuelako. Gero, atera zen atera zena. Jende amateurraz ari gara hizketan.

Pentsatzen dut erronka handiena izango zela kontu teknikoetan zenbateraino jarri zorrotz, zenbateraino eman amore.

Noski, etengabe neure burua lasaitzen aritu behar izan dut. Banekien ez zela aterako nik buruan nuena. Baina musikari gisara gutxiengo bat nahi duzu, eta ikusten duzunean desafinatuta kantatzen dutela, ez doazela erritmoarekin batera… filosofia handiz hartu beharra daukazu, diskoaren helburua beste bat dela sinestarazi behar diozu zeure buruari. Gauza horiek guztiak kudeatzea izan da zaila, baina emaitzarekin pozik nago. Azken batean, herriko kantak dira asko, eta uztakoetan saiatu naiz neure buruari jarritako maila horretara iristen. Adibidez, asko gustatu zait nola gelditu den *Irulea gira biran*, edo *Zurrumurru, zurrumurru*. Halakoetan, lagunei deitzeko lizentzia hartu dut: Aida Torres, Karlos Osinaga *Txap*, Mariano Hurtado, Kau Kori Kura, Amorante…

Diskoak balio izan al du Oionen zerbait aldatzeko?

Herritarrek esan didate aldatu direla kontu txiki batzuk. Adibidez, orain elkar agurtzen dute lehen egiten ez zutenek. Azken batean, kanta bat entseatzen elkarrekin luze aritu direnen artean lotura bat sortzen da. Bestalde, esan didate ondokoari beste era batera begiratzeko gai direla, gehiago enpatizatzen dutela. Disko honek ni autokritikoago bihurtu nau, eta pentsatzen dut herritarrak ere baietz. Gustatuko litzaidake proiektu honek jendea bultzatzea gauza txikiak egitera, nik zer dakit, jaietarako kanta bat, eta halako kontuak. Musikak badu –arteak, oro har– indar asko jendea motibatzeko eta mobilizatzeko. Are, musika iristen da beste arte diziplinak iristen ez diren puntu batera, hitzekin esan ezin duzuna esan dezakezu musikarekin. Eta ez du mundua aldatuko, baina Oteizak

zioen –eta ados nago– arteak ez duela mundua aldatzen, baina artista aldatzen duela, eta gero artistok, pertsonok garela mundua alda dezakegunak. Ni pertsona desberdina naiz zerbait konposatu aurretik eta ondoren. Sorkuntza prozesu orok aldatzen du pertsona. Bestalde, Oiongo proiektuak nire konfort eremutik atera nau etengabe, eta uste dut hori lortzen duen artea dela benetan eraginkorra. Konfortetik atera nauten kontzertuak dira memorian iltzatu zaizkidanak: Ertz jaialdikoak, edo, urrutira joan gabe, aurten Akauzaztek Galdakaon emandakoa. Noski, izugarri dibertitu naizen kontzertuak ere oroitzen ditut, baina, oro har, uste dut musikak ez duela konplazientea izan behar, deserosoa izatera hel daitekeen ariketa baizik.

» "Urteak daramatzagu Laboatik eta Letetik bizitzen. Puskatu beharra dago horrekin"

» "Oiongo herritarrek esan didate aldatu direla kontu txiki batzuk. Adibidez, orain elkar agurtzen dute lehen egiten ez zutenek"

Iruditzen zait bazterrotan jendea mobilizatzeko egiten diren kantetan sarri jotzen dela epika behartu batera, beti kantaren kaltetan.

Bai, eta pena da, ze epika modu asko daude, epika errazean jausi gabe. Adibidez, *Óyenos Oyón* kantako kexen korua ere oso epikoa da, baina hori da asko gustatzen zaidan epika bat. Kanta horri epika itsatsi egiten zaio, kexatzen ari zara, eta kantaren izaerak berak eskatzen du epika. Gustatuko litzaidake jendea mobilizatzeko egiten diren kantak negar egiteko baino gehiago izan daitezela akziora dei bat. Badaude moduak, egin daitezke gauzak betiko formulatik harago. Hasteko, eskatu talde bakar bati kanta egiteko, betiko collageak ahaztuta. Gero, saiatu trikitia eta ska estiloko haize sekzioetatik haragoko zerbait egiten. Otutzen zait, adibidez, Berri Txarrak gai dela melodia indartsuak egiteko letra interesgarriekin. Edo, bestela, Kau Kori Kurak ziur zerbait ederra egingo lukeela.

Malkorik ez badago, ez da nire iraultza.

Eta hori bilatzen dugu betiko formulekin. Urteak daramatzagu Laboatik eta Letetik bizitzen, *Txoria txori* enegarrenez bertsionatzen, dela dantzarako, dela antzerkirako. Puskatu beharra dago horrekin. Zergatik ez dugu jotzen ezagutzen ez den tradiziora? Begira gerrako kantekin Tapiak egiten duen lana. Badago zer aldarrikatu. Artze bera, adibidez. Egin dezagun kantaldi bat Artzeren letrekin, edo poema errezitaldi bat, edo *spoken word* bat, nik zer dakit. Irakur dezagun atzetik aurrera, esperimenta dezagun horrekin. Baina erabili dezagun material hori zerbait berria egiteko. Era horretara, memoria lantzen duzu, gauza berri bat egiten duzu, zure modura moldatzen duzu, eta jendeari ezagutarazten diozu. Oarso museoan halako zerbait ari dira egiten Artzerekin. Bere poema batzuetan oinarrituta ariketak prestatu dituzte euskaltegietako ikasleentzat, eta abar. Gauza horiek oso interesgarriak dira. Zerbait aktiboa izan daitezela museoak.

Alegia, ondarea hartu eta beste zerbait egitea, bere horretan erreproduzitu beharrean.

Edo hartzea bere espiritua, bere lan egiteko modua, eta jarrera horrekin egitea beste zerbait.

Beraiek omentzeko modurik onena litzateke, ziur asko.

Laboarekin hori pentsatzen dut. Ikusiko balu zer gertatu den bere kantekin, bihotzeko bat emango lioke. Aldiz, norbait hasiko balitz bat batean hizkuntza bat asmatzen, Bachen pasarte bat kontzertu batean sartzen, edo eszenatokian Chiquito de la Calzada bezala mugitzen... Gakoa da esentzia, espiritua, lan egiteko modua berreskuratzea, eta ez obra. ■

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2017

Final laurdenak

Irailak 23, BAIGORRI
Irailak 30, SEGURA
Urriak 1, LEITZA
Urriak 7, ZALLA
Urriak 8, ZUMAIA
Urriak 14, TOLOSA

Antolatzailea bertsozale elkartea
Laguntzailea ARGIA

bertsozale.eus

Izaro Ieregi

Zeinuari gorputza ematen

ZERO GRADUA (2017)

PVC mihisea, plastikoa eta kotoia. Neurri aldakorrak.

Xabier Gantzarain
@gantzarain

30 urteren bueltan dabilen belaunaldikoa da Izaro Ieregi (Algorta, 1987ko urriaren 28a), arretaz jarraitu beharreko belaunaldia, inondik ere, arteak Euskal Herria erakusteko duen modutik zerbait ikasi nahi bada. Gure bizitza da.

Arte Ederrak ikasia, Okela Sormen Lantegiko kide fundatzailea da. Gaztea izanagatik, lan ugari egin du orain arte, tartean *81 amama* dokumentala, baina bere arte lana da hona ekartzeko arrazoia. Proiektuka egin ohi du lan, serieka, eta bere kezka estetikoa zeinuak keinu bihurtzea da, zeinuei gorputza ematea.

Buenos Airesen egon da denboraldi batez, eta han egin zituen, aurrez Txinan bezala, *Zero Gradua* ariketak, *Time For Love* egitasmoaren baitan. Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren dokumentazio zentroan abiatzen da bere lana: han aurkitutako pegatinetan agertzen diren ekintzetan oinarrituta gidoiak sortu eta ariketak egiteko eskatu zien hainbat performerri. Ariketa horiek argazki eta bideoetan jasotzen ditu. Eta horrekin egiten du lan, eskultura bilaka daitezke, edo ez.

Elkarrizketa egin zion Ainhoa Larrabek *Berria*rentzat Buenos Airesera abiatu aitzin. Hauxe zioen artistak bere lanari buruz: "Komunitate baten mekanismo ideologikoak bistaratzen saiatu naiz ariketa horien bidez, garai historikoak bizi dituen komunitate batena". Eta beste hau ere bai: "Proiektuak talde sozialen subjektibitatearen inguruan jarduten du. Irudien pertzepzioa zalantzan jartzeko nire testuinguru propiotik ateratzea garrantzitsua iruditu zait, errealitatea keinu gisa ikusteko; hau da, zero gradura itzultzeko". Garai historikoak. Gure bizitza zen.

Urriaren 6an irekiko du erakusketa Basaurin, Arizko Dorretxean. Garazi Ansak idatzi dio testua, irakurtzekoa. Arretaz jarraitu beharreko belaunaldia. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gizarte berrien mailakoak

Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

1936ko gerra aurreko teatroan, nabarmen, izen bat: Abelino Barriola. Ez bakarra, noski, Toribio Alzaga izan zuen aitzindari, zeinari Barriolak berak aitortu zion maisugoa –"Zugandik etorri zait euzko-antzerti gaietako zaletasuna"–. Baina Barriola, Lino Akesoloren arabera: "Idazle onekin euskal-teatroa bide berria urratzen asiko da. Artean baño goragoko gaiak, gizarte berrien maillakoak". Aurrerakoia, garaiari egokituagoa, "gizarteko arazo sakontxoak arrotzen ditu", "Donostiako teatroa joxemaritarren girotik atera eta mundu zabalagora eta aize berrietara eraman naiez ari izan da".

Komedia bazter, Barriolak idatzitako lau dramak biltzen dira liburuan (*Zulo madarikatuak*, 1911; *Lagun txar bat*, 1912; *Maitasunak*, 1923; guztietan gorena *Goi argi*, 1935). Oro har emaitzarik onenak lortutako generoa izateaz gainera, "denboran zehar izandako aldaketen erakusgarri zabala osatzen dutelako". Argi azaltzen ditu hitzaurrean Xabier Mendigurenek: irri antzerkitik dramara, gero eta lan luzeagoak, ideologia nabarmenduz, herritik hirira, pertsonaian gizarte maila gero eta jasoagoa, emakumearen garrantzia eta goraipamena. "Hasierako lanetan Soroagandik datorren usadiozko antzerki molde donostiarrari erabat lotzen bazaio ere, piskanaka antzerkikera berezi eta bere-berea lortuko du".

Zertan da, bada, antzerkikera modu hori? Ez ekintza huts, ez eta hutsal ere, baizik eta hausnar –bakarrizketa gisakoak, barne pentsamenduak–, adibidez fedeaz. Fedegabeko pertsonaiak agertzen dira, mojei "alfer", "zomorro" deitzen dietenak. Apaiza, gizon eta emakumeen arteko harremanen aldekoa da –"gizonak bere artean eta emakumeak berenean" dituzten bezala–. Suizidio bat azalduko da. Nagusien gehiegikeriez kontziente, klase urguilu amiñi bat. Emakume liberatuak orobat, jazband –jazband!– jotzen duen beltzarekin dantzatu zen emakume andaluziar bat, Biarritzera hiru mutil euskaldunekin joaten den ingeniari aleman baten emaztea. Edota polimaitasuna iradoki dezakeen eztabaida: "Maitasun bakarrak betetzen duen biotza al dezu? Maitasunak! Nik asko ditut".

Ados, horien guztien azpian asmo moralizatzailea dago, ideologiak–abertzale, jelkide– sustrai sakonak ditu testuotan. Baina, zer egin behar ez den erakusteko besterik ez bada, testu zentsuratzaile haiek egiten zuten bezala, zer egin daitekeen erakusten digute. Gizarte berri haietan egiten zena. ■



Dramak
ABELINO BARRIOLA
Euskal Editoreen Elkartea, 1988

Abelino Barriola idazlea (Donostia,1885 - Paue, Okzitania,1944).

» DISKOA

Askatasun haizea

Joxi Ubeda

Kalima
GLAUKOMA
Bonberenea Ekintzak, 2017

Glaukomak beste urrats bat egin du aurrera *Kalima* hirugarren lan luzearekin. Disko bikoitza da, lan bikaina, Karlos Osinagaren gidaritzapean eta Joseba Ponceren diseinuarekin ederki osatua. Betiko Glaukoma dela antzeman daiteke kantuetan, baina helduagoa, zuzenagoa, gordinagoa, gogorragoa.

Reggae eta rap erritmoak eta doinuak dira nagusi, dancehall eta raggamuffin aireak ere ageri dira, beren kantuetan ohi den bezala, eta rock ukituak ere antzeman daitezke, aurreko lanetan baino nabarmenago.

Haien bidez, bidegabekeriak eta jendartearen gaixotasunak dituzte hizpide, boterea, faxismoa, kapitalismoa, ustelkeria, zapalkuntza, arrazakeria, errefuxiatuen tragedia, gerrak, historiaren manipulazioa, generoaren eraikuntza soziala, ongizate espejismoak, lan eta bizimodu eskasa, maitasun faltsua, indibidualismoa, itxurakeria... Eta begirunea, berdintasuna, adierazpen askatasuna, memoria historikoa, nor den bezala izatea eta bere burua onartzea, eta nork bere buruarekin pentsatzea eta erabakitzea aldarrikatzen dute.

Besteak beste, hauxe diote: "Migranteen hilobi Mare Nostrum, bitarten magnate baten yatea Pasaiako portun; Siriako esklabuk ez al du zuk daukezun jabe bea?" (*Fire –they're commin–*), "Kale bazterretan miseria Historia jaten ai da; itsu-mutu-gor-en garaia, galdera gabeko mende baten kronika" (*Kalima*), "Eztao generoik genitaletan, egitura mentala da; nortasunen banaketan, zu woman eta ni man, bakoitza bere ziegan; kapitalai halaxe komeni zaio, dominazio sistema bereizketan jaio da" (*Gure kaiola*), "Artalde honen parte izan baino lehen izango naiz nere Jaungoikoa" (*Intro*).

*Kalima*k hesiak eta mugak gainditzen ditu. Protesta, salaketa eta aldarrikapen oihuak biltzen dituen lanbroa da, beroa, eta askatasun haizeak mugitzen du.

Bonberenea gainezka zegoela aurkeztu dute irailean, eta hurrengo emanaldietara ere lagun ugari bilduko da: Arrasateko gaztetxean urriaren 5ean, Bilboko Stage Live aretoan urriaren 7an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan urriaren 28an, Donostiako Intxaurrondo kultur etxean azaroaren 4an, Bartzelonako Apolo aretoan azaroaren 18an eta Ondarroako Beikozini aretoan azaroaren 25an. ■

Glaukoma taldeko kideak.

Eten ezin den hegaldia

TXAPELKETA NAGUSIKO BAIGORRIKO SAIOA

Irailaren 23an, Baigorriko ezker paretan. Bertsolariak eta puntuaketa:
- Alaia Martin (712)
- Aimar Karrika (651,5)
- Beñat Ugartetxea (631,5)
- Ander Lizarralde (627)
- Mikel Artola (620)
- Xabi Maia (598,5)

Kattalin Miner
@MKattalin
ARGAZKIA: ALBERTO ELOSEGI / XDZ

Euskal Herritik kanpoko hainbat artistari entzun izan diot euskaldunak ez duela txaloa debalde jotzen, publiko zaila izaten dela, hotza; behin publikoa irabazita ordea, fidela dela oso, dagoen beroena, eta hori ondo dakigu txapelketan. Baigorriko ezker paretan, sintonia berria entzun eta lehenengo bertsolariak aretoa zapalduarekin bat, txapelketako txalogintza "ON moduan" jarri eta bertaratutako 600 lagunek oraindik ikusi gabeko ikuskizuna goratu genuen bero, nolabait, sei horiek egitera zihoazena aldez aurretik balioan jarriz-edo. Eta ez ginen damutu, puntuak puntu, seien artean eman baitziguten txapelketaren gorputzaldia bertaratutakooi.

Zortziko handian hasi zen saio puntuagarria eta hortxe nabaritu genuen txapelketaren zera hori, nabaritu egiten duzunean "hau izan da ona" eta txalo bidez bertsoaren balioa (eta zure epaileta-sunarena) berresten duzunean. Hain zuzen, Alaia Martinen lehen bertsoarekin ohartu ginen hortxe hasi zuela hegaldia eta kolpatu ezean, metro batzuk goitik arituko zitzaigula kantuan. Eta e, hau ez dut nik esan, izan ere, oholtzako sei bertsolariez gain, hurrengo asteetan kantatu behar duten hamabi kontatu bainituen bertan, txapelketari tenperatura hartzen, nota mentalak hartzen (badakizue nolakoak diren). Hala, bertso munduko bi eminentziei entzun nien "zorteko izango ginela larunbatean entzun genituen bertsoetako batzuk BEC-en entzuteko aukera izango bagenu". *Ojo*.

Zortziko txikia etorri bezala joan zen, ariketak berezko duen barrerako kolpe batzuekin, eta aurrera. Puntu-erantzunetaz ez dut ezer esango (eta ohitu zaitezte), ez dut eta ariketa hau batere maite. Beraz, hamarreko txikiarekin berriz egin zuen gora saioak. Hor Martinek, dagoeneko zapelatz itxuraz, saio hasierako hegaldiari bigarren igoaldia eman zion kartzela aurretik, hain zuzen, Laboari erreferentzian "Mila esker hegoak ez mozteagatik" horrekin. Baina nola moztu, dagoeneko?

Kartzelako gaiaren misterioa argitu genuen Mikel Artolarekin batera "Komisaldegitik deitu dizute, agertu dela erranez" entzun genuenean. Gustatu egin zitzaien nire ingurukoei (ez dira edozein, e? Nota mentalak hartzen dituzten horietakoak dira), bazuela mamia, irekiera justua... Eta sorta onak utzi zituen, esaterako, jasotako puntuen gainetik ibili zela iruditu zitzaidan Ander Lizarralde, eta bigarren egin zuen Karrika.

Ezin amaitu batzuei gorputzaldi ez hain ona utzi zien bertso eta esaldi batzuk aipatu gabe. Delikatua omen da marra gorriena, "pertsonala" batzuentzat, edonola, oraindik aurretik dugun saio mordoa ikusita, bertsolariei eta epaileei karga kendu eta entzuleon ardurari ere erreparatu behar genioke, hots, zeri egiten diogun barre eta zeri txalo. Zilegitasuna ere geuk ematen baitiogu hainbat gauzari.

Edonola, hasi da txapelketaren hegaldia, eta berandu da jada hegoak inon ezkutatzeko. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

Ezker-eskuin:
1. Irain, mesprezu. Zaldiak gidatzeko erabiltzen den uhal-multzo. 2. Bihar ez, hurrengoan. Belarri hitz-elkarteetan. 3. Ugaztun haragijale, buru txikia, gorputz mehea eta buztan luzea duena. 4. Ferekatu, xerak egin. 5. Sail, eremu. **Arabako udalerria (argazkian)**. 6. Begirunea merezi duena. Nikaraguako. 7. Larruazaleko eritasun kutsakorra. Nare, lasai. 8. Oholak. Ezantza.

Goitik behera:
1. Kontu, topiko. Dut, Gipuzkoan. 2. Sarrera. Nafarroako mendia. 3. Lore more-urdin urrintsu. 4. Bartzelonako hiri osoa gurutzatzen duen kalea. 5. Hurbil. Herri hizkeran, bada. 6. Errepikatuz, irakiten. Naizen honek. 7. Gogorra, aringarririk gabea. 8. Elizkizunetarako prestatuta dauden eraikinak. 9. Dago. Eremu magnetikoa sorrarazten duen gorputza. 10. Gehitzeko partikula. Nafarroako udalerria. 11. Ugari. 12. Anfibio mota. 13. Prezipitazio. 14. Gailur, tontor. 15. Itsas ugaztun harraparia.

Sudokuak

Erraza

6	1		8	3				9
		8			9		2	
				2	5	4	6	
1	9					8		7
8	6	4				2	1	3
7		3					9	6
	7	9	3	4				
	8		9			6		
2				1	8		3	5

Zaila

8		4			9		5	
7					6	8	1	
								4
1		5		7		9		
				2				
		3		8		5		1
5								
	1	9	7					5
	8		5			4		6

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Zezen zikiratuak	**IDIAK**
Partaidea, laguna	
Irri, burla	
Zintzilikatu	
Seik osaturiko gauza	
Jakina	
Frikun, bihurri	
Egoera estua	
Artilleriako pieza	
Baso	
Edo	
Irrintzia	
Hondakin, soberakin	**UZKIN**

Ebazpenak

Esker-eskuin: 1. Laido, Hede. 2. Etzi, Belar. 3. Lepahori. 4. Igurtzi. 5. Alor, Samaniego. 6. Duin, Nikaraguar. 7. Ezkabia, Naverik. 8. Taulak, Gasolina.
Goitik behera: 1. Lelo, Det. 2. Ate, Auza. 3. Izpilliku. 4. Diagonal. 5. Hur, Ba. 6. Bor, Nik. 7. Hertsia. 8. Elizak. 9. Da, Imana. 10. Fre, Aras. 11. Naro. 12. Igel. 13. Euri. 14. Gain. 15. Orka.

Erraza

6	1	2	8	3	4	7	5	9
4	5	8	6	7	9	3	2	1
9	3	7	1	2	5	4	6	8
1	9	5	2	6	3	8	4	7
8	6	4	5	9	7	2	1	3
7	2	3	4	8	1	5	9	6
5	7	9	3	4	6	1	8	2
3	8	1	9	5	2	6	7	4
2	4	6	7	1	8	9	3	5

Zaila

8	6	4	2	1	9	7	5	3
7	5	2	3	4	6	8	1	9
3	9	1	8	5	7	2	6	4
1	2	5	6	7	3	9	4	8
9	4	8	1	2	5	6	3	7
6	7	3	9	8	4	5	2	1
5	3	6	4	9	8	1	7	2
4	1	9	7	6	2	3	8	5
2	8	7	5	3	1	4	9	6

ANAGRAMAK
Idiak
Kidea
Isela
Eseki
Seiko
Noski
Kokin
Kinka
Kanoi
Oihan
Nahiz
Zinka
Uzkin

ESAERA ZAHARRA
„Jolas nekeak arinak, lan nekeak astunak"

Gilles Clement. Erresistentzia baratzetik



GILLES CLEMENTEK UTZIA

Baratzeari begiratzeko molde berri bat plazaratzen hasi zen Gilles Clement duela 25 urte. 1991n argitaraturiko *Le jardin en mouvement* (Baratzea mugimenduan) liburuarekin bazterrak inarrosi bazituen ere, laster arrazoia eman zion denborak. Orduz gero, erresistentziarako teoriak eta teknikak plazaratzen dihardu, baratzeko lana sekula bazterrera utzi gabe. Baratzea egitea oraindik ere politika egitea delako.

Biziduna lehenetsi

"Baratzezain eta paisajista naiz profesionalki, baina baratzezaintzat daukat nire burua. Alde nahiko handia da paisajista baten eta baratzezain baten artean: biak dabiltza espazioan eraikitzen, paisaia fabrikatzen, baina paisajistak edozein materialekin lan egin dezake, baratzezainak haatik biziduna du lehenesten. Iraupenean bizidunaz okupatzeko betebeharra du baratzezainak. Baratze bat noiz abiatzen den badakigu, baina ez dakigu noiz bukatzen den!".

"Bizidunek gauean asmaturikoa ulertu behar dugu egunero baratzezainok"

Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Hainbat baratze ospetsuren sortzaile zara. Crozant herrixkako baratzezain txikia nola bilakatu zen handi?

Espazio publikoan agertzen hasi nintzenean hasi nintzen ezagutua izaten. Parisko André Citroen parkea izan zen nire lehen baratze handia, beste paisajista batekin eta bi arkitektorekin batera sortutakoa. Horrekin teorizatu "baratzea mugimenduan" nozioak oihartzun handia ukan zuen. Liburuak idazten hasi nintzen, justuki *Le jardin en mouvement* (Baratzea mugimenduan) izan zen lehena. Lanbideari buruzko begirada aldaketa eragin zuen liburuak. Agian horrek zidan ekarri ospe deitzen duzun hori... Ez dakit, ez naiz ohartzen.

Teoria horri segi, landu baino gehiago baratzea behatu behar dela diozu.

Hori da. Hala ere artetan esku hartu behar da, hori gabe baratzea oihan bilakatuko litzatekeelako! Baina gutxiago eginez, kontrako energia gutxiago erabiltzen dugu. Gainera, arreta luzatzen bazaie, landareen jokamoldeari buruzko jakintza emendatzen dugu.

Ideiak eta nozioak ereiten zabiltza. Adibidez, baratzea egitea erresistitzea dela.

Baratzean aritzen garenean ez gara gehiago inposatua zaigun denborarekiko harremanean. Ez gara zalutasunaren presioaren menpe. On egiten du, oreka dakar. Natura inoiz ez da gelditzen eta bizidunak gauean asmaturikoa ulertu behar dugu egunero. Naturaren antzea ez dugu menperatzen eta espirituaren autonomia deitzen dudana ezinbestekoa dugu hori ulertzeko.

Erran nahi baitu?

Emaitza oso sofistikatuak dakarten gertaerak dauzka naturak baina ez ditugu ezagutzen. Adibidez, landareen arteko komunikazioaz oso gutxi dakigu. Alta, ulertzea lagungarria litzaiguke. Kudeaketa planen aurka naiz, mantentze programa bat aplikatzen dabiltzan robot bihurtzen direlako baratzezainak. Maleruski geroz eta gehiago daude. Baratze baten bilakaera ezin da teknokrata baten moduan aurretik pentsatu.

Gizon-emakumeen esku-hartzerik gabeko guneak "sekulako altxorrak" direla dio Clementek. "Hirugarren paisaia" nozioarekin izendatzen ditu gune horiek eta dioenez oraindik anitz daude hirietan zein baserri munduan.
GEORGES LÉVÊQUE

Pestizida eta intsektizidekin baratzean dabilena baratzezain izendatzen duzuia?
Baratzezaina baino gehiago, eremuaren teknikari bat dela errango nuke. Garbitasunaren ordena betetzen duena da; baina garbitasunak ez du ezer ikustekorik biologiarekin. XX. mendeko ikuspegi higienista eta estetisante horrek ditu ezabatze teknika arriskutsu horiek ekarri. Lurreko bizia desegin, urak kutsatu eta espezieak desagerrarazi dituzte. Ez dira baratzezainak, uste dute hala direla baratzean dabiltzalako, baina ez! Baratzezaina bizidunaz arduratzen da, ez da hor hiltzeko.

Baratzearekin baino gehiago lobbyekin dira harremanetan agintari politikoak.
Hori hala da. Funtsean, ez gara demokrazia batean, bozkaturiko hautetsiek ez dute benetan botererik. Uste dute badutela, baina ez, lobbyek, multinazional handiek dute boterea.

***Hirugarren paisaia* deitzen duzuna ere bada, baratzea bezain garrantzitsua.**
Adibidez, ordura arte laborantzarako ziren eta gaur egun beren gisa utziak diren eremuak dira. 60ko hamarkadan hasiz, paisaia erabat bestelakotu zen laborantzaren mekanizazioarekin. Makinak lagungarriak izan ziren, baina aldi berean, gune deserosoak alde batera utzi zituzten. Mekanizazioaren ondorioz haizaturiko eta geroztik ere kimikoarekin uxaturiko aniztasuna garatzen ari da gune horietan. Horiez gain, gizon-emakumeak inoiz joan ez diren guneak edota gune babestuak ere dira hirugarren paisaiak. Sekulako altxorrak dira.

Hirian bizi denari zer esaten diozu ?
"Laborantzazko hiri" batzuei buruz goazela errango nieke. Remi Janin paisajista gazteari mailegaturiko nozioa da hori, izen bereko liburu txiki bat idatzi berri du. Ideia da hiritarrek naturaren jitea onartzen badute, natura etorriko zaiela. Utzi dezatela jiten eta gero ikusiko dute zer egin. Hirugarren paisaiak daude hirietan, aniztasunari dagokionez, zinezko altxorrak direnak. Baina imajina daiteke ere janari ekoizpena garatzea eremu horietan.

Geroari begira baikor zirea?
Epe laburrari so egitean ez, baina epe ertainera begiratuz bai. Donostian adibidez, Ulia parkea urbanismoaren mehatxupean dute; benetan penagarria da, udaletxeak parkearen garrantziaz kontzientziarik ez duenaren isla da. Proiektu pedagogikoak egin ditzakete bertan, dagoen aniztasuna babestuz edota zergatik ez erabiliz. Egoera orokor baten sinbolo da Ulia parkea. Hiri baten heinean kokatzen da, baina azkenean munduan berdina gertatzen ari da: dirua da nagusi. Modelo ekonomiko katastrofiko horretan segitzen duguno ez naiz baikor izanen. Baina uste dut hala ere eredua alda dezakegula.

Tokian tokikoa.
Bai, hori da, tokian tokiko ekimenei esker dugu lortuko. Eusko tokiko moneta, adibidez, interesgarria da. Inposaturiko eredua errefusatu eta berri bat eraikitzen dabiltzanei esker dugu lortuko. Tokiko klimari, egoerari eta kulturari moldatuz indartsu gara. ■

AZKEN ORDUKOA

Kataluniako konponduta: EAJk bere burua eskaini du bitartekariarena egiteko

EAJk, Salburuan eguraldi ona egin duela aprobetxatuz, esan du bera prest dagoela dena konpontzeko, eta denek hartu dute arnasa. "Uf, EAJren bitartekaritza eskaintzarekin lasaitu ederra hartu dugu", azaldu du karriketan protestan astebete daraman Jordi Martorell i Pi bartzelonar gazteak, "kalean oihuka segitzen dugu, bai, baina honezkero etxea non daukagun ere ahaztu egin zaigulako".

Proposatuko duen irtenbide zehatza azaltzeko goiz dela adierazi du Euzkadi Buru Batzarrak, baina momentuz kaleak oztopatzen dabiltzanak etxera joateko berehala, hori ez dela ez normaltasuna, ez demokrazia, ez ezer. Elkartasun praktikoa adierazteko, Ertzaintza bidaltzeko prest ere azaldu dira jeltzaleak, herri harresietan pilatutako esperientzia konpartitze aldera.

Kataluniakoa "bost minutuan" bideratuta utzi eta "hurrengo pausoa izango da Trumpi eta Ipar Koreako lider gorenari (ez gara izenaz akordatzen) euren liskartxoez berba egiteko txoko bat eskaintzea Urdulizko Batzokijan", mehatxu egin du Sabin Etxeak.

Momentu hauetan apaltasuna eta sosegua beharrezkoak direnez, Ainhoa Goikoetxea aukeratu du EAJk bitartekari.

SAREAN ARRANTZATUA

Badatoz errefortzuak

Zozoak beleari esandakoa irain arrazista ote den ikertuko du fiskaltzak

Bizkaiko Txorierri eskualdean gertatu da ustezko delitua. Naturaz gozatzen ari ziren dozenaka lekukok entzun dute zozoak beleari ozenki eta maltzurkeria apur batez esandako iraina, irakurleen sentiberatasuna ez mintzeko hemen errepikatuko ez duguna.

Gertatutakoarekin oso minduta agertu da ZOZ Arrazakeriako bozeramale Hegoi Txiogibel, eta kasua aztertuko duela iragarri du hegazti kontuetarako fiskal nagusi Enara Hegaztiburuk. Zozoak argudiatu du dena txantxa gorria izan dela. "Ez zait iruditzen hainbesterako denik, baina bele mokofin hori edozergatik aztoratzen da. Handiegia duela egoa, azken beltzean. Ui, barka...".

Beste txori batzuen iritzia jakin nahi izan dugu, baina mikrofonoa hurbiltzean txio-txioka hasi dira denak, disimulatzen.

PRENTSA ASKATASUNAREN ETA ASKATASUN GUZTIEN ALDE

EZ DIRA PASAKO

KATALUNIAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA

ARGIA

ARGAZKIA: JORDI BORRÀS

ARGIA EGUNA

TXIKITIK ERAGITEN
GASTEIZ, URRIAK 7

10:30 OroiTour, memoriaren ibilbidea*
11:00 Gasteiz Euskaldunaren ibilbidea*
12:00 Jolas hezitzaileak
12:30 Argiazaleen topaketa
14:30 Herri bazkaria, produktu ekologiko eta hurbilekoekin*
Prezioa: 15 euro
(12 euro langabetu, ikasle eta langile prekarioentzat)
16:30 Monologoa: Mirari Martiarena
17:30 Euskal Herriko IV. nortasun agiri arrotz jaurtiketa txapelketa
19:00 Kontzertua:
Txalainak (Hertzainak-en bertsioak)
Jon Basaguren

Lekua: Landatxo / Kontzertuak: Gaztetxean

*Ibilaldi gidatuetarako eta bazkarirako izena emateko, deitu 943-37 15 45era edo idatzi komunitatea@argia.eus posta elektronikora.

Jakoba Errekondoren landareen kontsultategia Bionekaraba azokan (Foru Plaza)

ANTOLATZAILEA
ARGIA

LAGUNTZAILEAK
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

BABESLEA
ERKIDE Euskal Kooperatibak